BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA



## FUTBOLA: LARRAITZ KORTABARRIA FITXATU DU ATHLETICEK /10


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko ekainaren 27a • IV. urtea • 116. zenbakia

DOAN BANATZEKOA




**Goienka2a**

**Kultur Errota: formatu txikiko kultura eskaintza**

**TXERRA BOLINAGA** / GAY MUGIMENDUKO KIDEA

*"Izatezko Bikoteen Legea aurrerapausoa da, baina, azken baten, homosexualok ezkontzeko eskubidea izan gura dugu"* **/8-9**



ENEKO AZKARATE

Rekarte, Barkero eta Arantzabalekin elkartu ginen Donostian martitzenean, Anoetako jaiaren aurretik.

GEHIGARRI BEREZIA ERDIALDEAN: 'AUPA, REALA!'

# Realeko jokalari debagoiendarrekin elkartu gara

Realaren gaineko gehigarri berezia egin dugu, 16 orrikoa, erdialdean aurkituko duzuna. Besteak beste, Roberto Olabe Realeko kirol zuzendariari egindako elkarrizketa irakurri ahal izango duzu; baita Vigoko partiduko eta Anoetako azken partiduko argazki kronika eta analisiak ere; Debagoieneko txuri-urdin zaleen argazki eta komentarioak; Realak lehen Liga Txapelketa eskuratu zuenean, talde txuri-urdinean zebiltzan *Gaztelu*, Kortabarria eta Idigorasi egindako elkarrizketa… Horrez gain, oraingo Realeko jokalari debagoiendarrekin –Rekarte, Barkero eta Arantzabal– ere egon gara, eta haiei egindako elkarrizketa jaso dugu gehigarri berezi horretan. Anoetako amaiera jaialdiaren atarian, martitzen arratsaldean, elkartu ginen hirurekin.

■ *Denboraldi luze eta arrakastatsuaren ostean, oporrak hartzeko irrikan daude hirurak*

## Puntu Berde Mugikorra: etxeko hondakinak birziklatzeko gunea

Ekaina ezkero abian dago Mankomunitatearen beste egitasmo bat: Puntu Berde Mugikorra izeneko gune ibiltari bat. Hilean edo bi hilean behin egongo da ibarreko herri guztietan, egun, ordu eta kokapen jakin batzuetan. Joan den astean egon zen gurean lehenengo aldiz, Arrasaten eta Eskoriatzan, hain zuzen, eta bihartik astelehenera bitartean bisitatuko ditu ibarreko gainerako herriak.

Orain arte Debagoieneko hainbat herritan egiten zen moduan, etxeko olioa eraman ahal izango dugu hara birziklatzera; baina baita beste hondakin mota batzuk ere, hala nola: bonbilla fluoreszenteak, poltsikoko telefonoak, bateriak… Mankomunitateak abian jarri duen Puntu Berdeak eskaintzen duen zerbitzua erabiltzeko, arau gutxi batzuk hartu behar dira kontuan. **/3**

DEBAGOIENA

### Urrian zabalduko dute Eibar-Gasteiz autobidea

Urrian zabalduko dute A-1 autobideko lehenengo zatia, Bergaratik Maltzagaraino doana. Horrela baieztatu zuen eguaztenean, Bergaran, Antton Jaime Errepide diputatuak, Bergaran dagoen Ondartzako Interpretazio Zentroaren inaugurazioan. Bestalde, Bergaratik Arrastera arteko zatia, Epelerainokoa, 2005ean barrena zabalduko dutela aurreratu zuen Jaimek. **/4**

DEBAGOIENA

### González de Txabarri Oñatin izendatu dute diputatu nagusi

Oñatin hartu zuen kargua atzo Gipuzkoako ahaldun nagusi berriak, Joxe Joan González de Txabarrik (EAJ-EA). Egun handia izan zen harendako, alboan izan zituen-eta hainbat alderdikide: Atutxa, Sudupe, Anasagasti, Juaristi…; ibarreko alkateak ere han izan ziren. González de Txabarrik, EAJ-EA koalizioaren 27 boto jaso zituen, erabateko gehiengoa lortuz. **/5**







DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/6 • HERRIZ HERRI/7 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

## sukaldeko olio erabili eta hondakin arriskutsuen gaikako bilketa

**NON eta NOIZ?**

| | | | |
|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | Herriko plaza (frontoi ondoan) | Hileko azken ostirala (bi hilez behin, bikoitietan) | 9:00 - 13:00 |
| ARETXABALETA | Belorrieta kalea (azoka egiten den kalea) | Hileko azken astelehena | 9:00 - 13:00 |
| ARRASATE | Azoka (Mondragones kalea) | Hileko bigarren ostirala | 9:00 - 13:00 |
| | Laubide plaza (arropen merkatua) | Hileko azken ostirala | 9:00 - 13:00 |
| BERGARA | Merkatu plazaren ondoan | Hileko azken larunbata | 9:00 - 13:00 |
| ELGETA | Mendizaleen plaza (Udaletxe parean) | Hileko azken ostirala (bi hilez behin, bikoitietan) | 16:00 - 20:00 |
| ESKORIATZA | Eduardo Gorosarri Jaunaren plaza (merkatua) | Hileko bigarren ostirala | 9:00 - 13:00 |
| LEINTZ GATZAGA | Herriko plazan (megafoniaz deituko da) | Hileko azken astelehena | 13:30 - 14:30 |
| OÑATI | Merkatu plaza (Foruen Enparantzaren ondoan) | Hileko azken larunbata | 9:00 - 13:00 |




**ZER HONDAKIN BILTZEN DIRA?**

sukaldeko olio erabilia *
fluoreszenteak **
bateriak
toner kartutxoak
erradiografiak
pilak
telefono mugikorrak
termometroak
etxe-tresna elektriko txikiak
motore olioak ***
pinturak eta disolbatzaileak ***
garbitasun produktuak ***
(lixiba, amoniakoa, etab.)
pestizidak eta antzerakoak ***
aerosol ontzi beteak edo erdi beteak

* motore olioarekin nahastu gabe,
** bere ontzietan sartuta,
*** ontzi itxietan

Zure partehartzea eskertzeko, oparitxo bat jasoko duzu



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua
**M. ALTUNA**



## 2003/2004 ikasturterako
## Hezkuntza-eskaintza

**■ GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**
- Administrazioa eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta Kautxugintza

**■ ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**
- Mekanizazioa (goizez eta gauez)
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administraritza Kudeaketa

**MATRIKULA EPEA**
**EKAINAREN 30etik UZTAILAREN 4ra**

- *Lan mundurako sarrera azkeneko urteetan %90etik gora*
- *Praktikak enpresetan eta atzerrian*
- *Harreman estuak inguruko enpresekin*
- *Teknologia aurreratua*
- *Eskola publikoa: integratzailea eta anitza*

Ibargarai 1 • **BERGARA**
Tf. 943 76 24 91/ 943 76 38 40.
Posta-e: imaltuna@sarenet.es
www.imaltuna.com
Bulego orduak: 09:00etatik 14:00etara

# Birziklapen gune ibiltaria, gurean

- Etxeko askotariko hondakinak jasotzen ditu Puntu Berde Mugikorrak
- Ibarreko herri gehienetan oraingo astean egongo da lehenengo aldiz

LEIRE KORTABARRIA

Papera, kartoia, pilak, beira... birziklatzea ez da nahiko. Izan ere, erabiltzen ditugun ia material guztiak aprobetxatu edo, gutxienez, modu ez kutsakorrean kudea daitezke. Hil honetatik aurrera, debagoiendarrok ez dugu aitzakiarik izango etxean erabiltzen dugun olioa arraskatik behera botatzeko. Izan ere, lehen udal batzuek ematen zuten zerbitzua ibar osora zabaldu du Mankomunitateak, Puntu Berde Mugikorra delako ibilgailuaren bidez. Arrasaten eta Eskoriatzan egin zuen estreinaldia zerbitzu berri horrek, ekainaren 13an, eta gaur, egubakoitza, bihar eta astelehenean egongo da beste herri batzuetan. Puntu Berde Mugikorrera eraman beharko dugu erabilitako olioa, orain arte bezala. Baina ez olioa bakarrik.

"Lehen udal batzuek ematen zuten zerbitzua Debagoienera zabaltzeaz gain, beste zerbitzu batzuekin osatu dugu. Izan ere, Puntu Berde Mugikorrean, olioaz gain, etxeko beste hondakin batzuk birziklatzeko utzi ahal izango dira", azaltzen du Mikel Jaio Mankomunitateko Ingurumen Saileko buruak.




IRATI AGIRREAZALDEGI

Debagoieneko hainbat herritan lehen ere ematen zen olio bilketa zerbitzua; orain, zerbitzu hori ibar osoan eskaintzen da.

**DENETARIKO ETXEKO HONDAKINAK**

Mikel Jaiok azaldu bezala, Puntu Berde Mugikorrak askotariko hondakin solido kutsakorrak batuko ditu: bateriak, fluoreszenteak, toner kartutxoak, erradiografiak, pilak, poltsikoko telefonoak, termometroak, etxetresna elektriko txikiak, eta aerosol ontzi beteak edo erdi beteak ere.

Horiez gain, hainbat hondakin likido ere jasoko ditu ibilgailu berezi horrek, hala nola: motor, olio, margo, disolbatzaile, garbitasun produktuak edo pestizidak. Horiek guztiak ontzi itxietan eraman beharko dira ibilgailura.

Puntu Berde Mugikorra erabiltzen erraza eta erosoa izango da; izan ere, biltzaileak ontzia garbituko du, edo ontzia bera ere birziklatzeko utzi ahal izango dugu, aukeran. Herritarren parte-hartzea eskertzeko, gainera, xaboi bana opari egingo diete.

**OLIOA, USTE BAINO ARRISKUTSUAGOA**

Mota horretako zerbitzuak indarrean jarri aurretik, erabiltzaile gehienek arraskatik behera botatzen zuten erabilitako olioa. Hori egitea dirudien baino kaltegarriagoa da. Honela diosku Mikel Jaiok: "Debagoienean olio hori guztia ibaira doa zuzenean, eta landaretzari eta izakiei oxigenoa kentzen die. Arazo praktikoak ere ematen ditu: hain zuzen, hodiak buxatzen ditu olioak".

Olioa berriro erabil daiteke; hortaz, arraskatik botatzea baino hobe da birziklatzea. Ecogras enpresa donostiarrak kudeatzen du Puntu Berde zerbitzua –orain arte, olio bilketa eskaintzen zuten herrietan ere hark ematen zuen zerbitzu hori–, eta jasotako hondakinak beste enpresa batzuetara bidaltzen dira. Mankomunitateak hitzarmen bat du Bionor enpresa arabarrarekin, olioarekin biodiesela egiteko, hau da, diesela baino askoz erregai garbiagoa. Bestalde, jasotako bestelako hondakinak euren izaerari egokitutako moduan kudeatzen dira: "Batzuk aprobetxatu egin daitezke, osoki edo zatika; adibidez, poltsikoko telefonoak. Beste batzuk, ordea, ezin dira berriro erabili. Horiek hondakin arriskutsuen hondakindegietara botatzen dira", azaltzen du Mikel Jaio Mankomunitateko arduradunak.

Ekaina ezkero dago indarrean Puntu Berde Mugikorra, baina ez da Mankomunitateak eskainiko duen birziklatze zerbitzu bakarra: udazkenean, oihala ere birziklatu ahal izango da.

EGUNAK

### Hileko egun bat edo bitan egongo da Puntu Berdea herri bakoitzean

**Puntu Berde zerbitzua hileko azken egubakoitzean egongo da Antzuolan, Arrasaten eta Elgetan; hileko azken astelehenean, Aretxabaletan eta Gatzagan; hileko azken zapatuan, Bergaran eta Oñatin; eta hileko bigarren egubakoitzean, Arrasaten eta Eskoriatzan. Elgeta eta Antzuolaren kasuan, bi hilean behin egongo da, ekainean hasita. 09:00-13:00 izango da ordutegia kasu guztietan, Elgetan (16:00-20:00) eta Gatzagan (13:30-14:30) izan ezik.**

NON EGONGO DA?

### Merkatu plazak aukeratu dituzte birziklapen zerbitzua kokatzeko

**Hona hemen Puntu Berdea non egongo den, herrika: Antzuolan Herriko Plazan egongo da, frontoi ondoan; Aretxabaletan, Belorrietan; Arrasaten, Azokan (Mondragones kalean), hileko bigarren egubakoitzean, eta Laubide plazan, hileko azken egubakoitzean; Bergaran, merkatu plazan; Elgetan, Mendizaleen plazan; Eskoriatzan, merkatuan (Gorosarri plazan); Gatzagan, Herriko Plazan; eta Oñatin, merkatuan, Herriko Plazaren inguruan.**

OIHALAK

### Oihalak birziklatzera botatzeko ontziak ipiniko dituzte irailean

**Udazken partean, Mankomunitateak beste pausu bat emango du Debagoienean birziklapenaren kultura errotzeko: oihala birziklatzera uzteko edukiontziak ipiniko ditu. "Ontziok erosita daude, eta zerbitzua kudeatuko duen enpresarekin tratuan gaude", dio Mankomunitateak. Irailean jarriko da abian zerbitzu berri hori, eta kanpaina informatiboa egingo da, baina, ibarreko erakundearen esanetan, "oihal mota guztiak, oinetakoak... bota ahal izango dira".**

OLIOA ERAMATEKO ORDUAN

### Etxean erabilitako olioa ezin da beste erregai batzuekin nahastu

**Olioa jasotzeko zerbitzua abian zegoen orain arte Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Elgetan eta Eskoriatzan. Aurrerantzean ere, lehengo betebeharrak gogoratu beharko dituzte, bai eurek, bai eta zerbitzua lehen aldiz erabiltzen dutenek ere: etxeko olio mota guztiak eraman daitezke -oliba edo landare-olioa- baina ezin da etxean erabiltzen ez diren erregaiekin nahastu. Beirazko, plastikozko edo brik erako ontzietan eraman daiteke olioa.**

# Eibar–Gasteiz autobideko lehenengo zatia, Bergara eta Eibar lotuko dituena, urrian zabalduko dute

*Soraluzen dagoen Larreategiko zubibidean bi errei bakarrik erabil ahal izango dira, hasiera baten*

ENEKO AZKARATE

**Urrian zabalduko dute A-1 autobideko lehenengo zatia, Bergaratik Maltzagaraino doana. Horrela baieztatu zuen eguaztenean, Bergaran, Antton Jaime Errepide diputatuak, Ondartzako Interpretazio Zentroaren inaugurazioan.**

Soraluzen dagoen Larreategiko zubibidean izandako arazoak direla-eta, Eibar-Gasteiz autobidea uste baino beranduago zabalduko dute. Hain justu ere, urrian zabalduko dute lehenengo zatia, Bergaratik Eibarrera arteko zazpi kilometrokoa. Edozelan ere, Larreategiko zubibidean bi errei bakarrik zabalduko dituzte, besteak konpondu bitartean. Arazoak konpontzen dituztenean, datorren urte hasieran, lau erreiak zabalduko dituzte.

Bestalde, Bergara iparraldea eta hegoaldea lotuko dituen zatia, Ondartzatik Zaldumendira artekoa, datorren urtean barrena zabalduko dute eta Zaldumenditik Arrastera artekoa, Epelerainokoa, 2005ean. Autobide osoa, Maltzagatik Etxabarri-Ibiñaraino, 2007rako amaituko dute. Antton Jaime Errepide diputatuak eman ditu autobidearen gaineko azken berriak, oraingo astean, Bergaran.



ENEKO AZKARATE

Eguaztenean inauguratu zuten, Bergaran, Ondartzako Interpretazio Zentroa. Han egon ziren ibarreko alkate gehienak.

#### INFORMAZIOA, HERRITARREN ESKURA

Gure ibarra zeharkatuko duen autobidearen gaineko zehaztasun guztiak eguaztenean Bergaran inauguratu zuten Ondartzako Interpretazio Zentroan daude ikusgai. Panel, maketa eta ikus-entzunezkoen bitartez, besteak beste, autobideko tunel eta zubibideen gaineko informazioa, segurtasun neurrien gainekoa eta ingurumenaren gainekoa erakutsiko dituzte. Interpretazio Zentroa martitzenetik domekara arte egongo da zabalik, goizez hamarretatik ordu batera eta arratsaldez bostetatik zortzietara. Bestalde, Interpretazio Zentroko bigarren solairuan autobidearen tunelen eta, oro har, zirkulazioaren zaintza gunea jarriko dute urrian.

Ondartza baserria Amillaga auzoan dago, Bergarako saihesbidetik herrira sartzeko dagoen sarreretako baten ondoan, biribilunearen parean.

> *Autobidearen gaineko informazioa herritarren eskura dago Ondartzako Interpretazio Zentroan*

## LABUR

### Ekintzaileen gaineko liburua aurkeztu du Inazio Irizar irakasleak

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko irakasle Inazio Irizarrek liburua aurkeztu du oraingo astean. Ekintzaileen gaineko liburua da, eta, besteak beste 89 adibide batzen ditu. *El reto de ser emprendedor* izeneko lanak 350 orrialde ditu eta 1.000 ale atera dituzte, hasiera baten. Unibertsitateko eskoletan erabiliko dute liburua, baina erosi gura duenarendako ere salgai egongo da liburu dendetan, hain zuzen ere, 22 euroren truke.

### Ikasturte berrirako eskaintza aurkeztu du Bergarako UNEDek

Bergarako UNEDek datorren ikasturterako eskaintza akademikoa aurkeztu du oraingo astean. Hogei ikasketa unibertsitario baino gehiago eskainiko ditu. Gizarte eta Kultura Antropologiako ikasketa izango da eskaintza akademikoaren berritasun nagusia. Horrez gain, filosofiako plan berria jarriko dute abian eta tutoretza telematikoa egiteko aukerak zabalduko dituzte. Hizkuntzen urrutiko irakaskuntzaren goi maila izango da beste berritasunetako bat. Eskariak egiteko epea uztailaren 31ra arte dago zabalik.






GOIENKARIA
Itoizko urtegiaren aurka domekan Iruñean egingo den manifestaziorako dei egin dute.

# Itoizko urtegiaren aurkako taldea osatu dute ibarrean

*Domekan Iruñean egingo den manifestaziora joango dira*

E.A.

Itoizko urtegiaren egitasmoaren aurka dauden hainbat debagoiendar elkartu eta taldea osatu dute, geurean ere hainbat ekimen bultzatzeko. Hasteko, oraingo domekan Iruñean egingo den manifestaziorako dei egin diete debagoiendarrei. Manifestazioa *Herriak gelditu. Itoitz bizirik* leloa hartuta egingo dute, 12:00etan, Iruñeko autobus geltokitik irtenda. Iruñera joateko Arrasateko Arbolapetan batuko dira, 10:00etan.

Gai horrekin kezkatuta dauden debagoiendarrei dei egin nahi diete taldekoek. Horretarako, mezu bat igorri digute. Honela dio: "Irati ibaiaren ibarreko hainbat herri suntsitu dituzten arren, Itoizko urtegia ez da amaitua egongo berau urez bete arte. Zentzugabeko lan horiek gelditzeko aldarrikapenarekin, ibar harekiko elkartasuna adierazi nahi dugu".

ELKARRIZKETA/PRESOEN EGOERA

**JOSE CAMPOS** / BAUTISTA BARANDALLAREN EMAZTEA

# *"Bautista zigortu nahi dute, preso politiko guztien erreferentea delako"*

ENEKO AZKARATE

**Hil honen 18an egin zioten ebakuntza, Iruñean, azkenekoz Bautista Barandalla preso etxarriarrari. Hestea barrura sartu eta zioten. Barandallak hezurretako gaixotasun larria ere badu, baita ikusmen arazoak ere, baina kartzelan segitzen du.**


ARGAZKI PRESS
Jose Campos hunkituta dago jendeak adierazi dion elkartasunagatik.

**Zelan dago Bautista?**

Ebakuntza egin zioten orain dela hamar egun, eta nahiko ondo atera zen dena, espero bezala. Orain, ordea, berriro ere Zaragozako espetxera eroango dute gaur, egubakoitza, datorren astean berriro ere ospitalera, Iruñera ekartzeko. Lotsagarria iruditzen zaigu Bautista dagoen egoeran egonda, harantz eta honantz ibili behar izatea. Orain, mediku txostenak Zaragozako epaileari lehenbailehen eraman eta errekuperatu bitartean, gutxienez, Iruñean utz dezatela eskatu nahi diogu. Izan ere, medikuek esan ziguten Bautistak urte txarra igaroko duela, eta hori paper baten jar dezatela nahi dugu. Ondoen etxean egongo da, baina hori badirudi ez digutela onartuko. Hortaz, behintzat, operatu duen medikuaren ondoan badago, gaitzerdi.

**Zer ebakuntza egin diote orain?**

Hestea josi diote, kanpora aterata zeukan-eta. Urtebetez poltsa aldamen batera aterata eduki du Bautistak; hortaz, orain, hestea barrura sartu eta zuloa josi egin diote. Bizimodu normal samarra egin dezake eta besteok bezala komunera normal-normal joan daiteke. Edozelan ere, aurrerantzean, konplikazioak izan ditzake eta medikuen zaintza berezia behar du. Kezkatuta gaude, ez dakigulako hemendik aurrera zer gertatuko den, medikuak ondoan izango ez baditu eta kartzelan egongo bada. Bautista beste edozein preso moduan bizi da kartzelan, gaixotasun sendaezina izan arren.

**Zenbat urte ditu Bautistak?**

Bautistak 38 urte ditu eta 13 urte daramatza espetxean. Berez, baldintzapeko askatasuna ezarri beharko liokete datorren urtean.

*"Bautista ondoen etxean egongo litzateke, baina hori badirudi ez digutela onartu nahi"*

**Epaileek kontu horretan darabilten jokabidearen gainean zer iritzi daukazu?**

Beste preso batzuekin, *Fiti*-rekin esaterako, gertatu dena ikusita, ez daukat zalantzarik Bautista zigortu nahi dutela, preso politiko guztien erreferentea delako. Bestalde, argi dago PPk darabilen politika zein den, presoak zigortu eta haien bizi baldintzak txartu nahi dituelako, eta eskubideak murriztu.

**Eta jaso dituzuen elkartasun ekimenen gainean?**

Sekulakoa izan da, toki guztietatik adierazi digutelako elkartasuna, baina, bereziki, Etxarriko plataformak egin duen lana azpimarratu nahi dut. Hark egindako lanari esker, Euskal Herrian ez da herritarrik ez dakiena zein den gaixotasun larria duen Bautista Barandalla presoa.



Gureak bestelako bidaiak dira

Aurten ere gure bidai programa aurkezten dizuegu. Beti bezala, talde txikietan mugitzen gara eta ikusten ditugun herriak errespetatuz.

Ruta de la Seda - India Norte y Sur - Tíbet y Nepal - China - Pakistán - Ruta de Caravanas - Birmania- Laos y Camboya - Filipinas - Indonesia - Irán - Yemen - Turquía - Egipto - Libia - Argelia -Marruecos - Mauritania - Ruta del Atlántico - Senegal -Malí y burkina Faso - Níger y Benín - Camerún - Kenya y Tanzania - Namibia y Bostwana - Ruta del Nilo - Madagascar - Etiopía - Alaska - Canadá - Parques USA - Ruta Maya - Guatemala - Costa Rica - Perú - Bolivia - Brasil - Venezuela - Patagonia - Nueva Zelanda.

...Baita ere

Utzi kotxea eta segi ohinez...

Horrela deitzen diogu banoan, trekin proiektuari.

Alto Atlas marroquí - Monte Kenya y monte Elgon - Monte Meru y Kilimanjaro - Montañas del Ruwenzori - Glaciar del Baltoro, K2 - Las fuentes del Ganges - Ladakh, valle de Markha - Everest. Campo base - Vuelta a los Annapurnas - Monte Kailash - Cotopaxi y Chimborazo - Cordillera Blanca y Camino del Inca - Vuelta al Paine y Fitz Roy.

Informazioa eskatu, hemen gaituzu:

banoa
1 9 9 1 Bidaiak

Ledesma, 10 bis, 2
48001 BILBO
Tfnoa: 94 424 0011
faxa: 94 423 2039
e-maila: bio@banoa.com



## González de Txabarri Oñatin izendatu dute diputatu nagusi

Oñatiko Santa Ana antzokian egin zuten atzo goizean Gipuzkoako ahaldun nagusia izendatzeko ekitaldia. Joxe Joan González de Txabarri (EAJ-EA) izendatu zuten diputatu nagusi. Gipuzkoako hainbat alkate, baita ibarrekoak ere, Atutxa Legebiltzarreko presidentea eta Sudupe aurreko diputatu nagusia elkartu ziren Oñatin, beste hainbat politikariren artean. /A.L.

## Zabalik



IÑIGO URRUTIA

### Aukerak?

**Gezurtiak, engainatzaile profesionalak eta txotxoloak gero eta esparru zabalagoak bereganatzen ari dira. Demokraziaren kalitateak ez omen du oinarri-oinarrizko ISO bat gainditzen azkenaldian eta, bitartean, politikoak zerura begira dabiltza, edota poltsikora.**

**Irakeko "guda" amaitutzat eman dute Azoreseko trileroek. Baina zergatik? Kazetariek handik hanka egin dutelako? Eta oraindik gertatzen ari diren erailketak eta gainontzeko astakeriak zer ote dira? –yankiek jakinarazi dute petrolioaren errenta zati bat Irakeko herriarentzat izango dela–. Trileroek eman zizkiguten arrazoi handiak aitzakiak zirela sumatu genuen, baina denborak erakutsi digu gezur hutsak besterik ez zela. Hala ere, hirukote horrek ez du politikoki ezer ordainduko.**

**Bestalde, gure esparru politikoan, gauzak gero eta okerrago joan daitezen, jo eta sua dabiltza asko. Hiritargoaren erdiarentzat diseinatutako planak, egunkarien itxiera, hiltzaileen goraipamen ulertezina, 'izan erabakitzeko' aurredemokraziako ideologia susmagarria, botere judizialaren porrota gobernuaren menpe... Alderdiak ez omen ziren, soziologiaren arabera, gizartearen eta instituzioen arteko bitartekoak? Funtzio hori aldatzen ari da eta ez gizartearen mesederako. Aldiz, korrupzioak, gezurrak (politikan bekatu onartezina) eta ordezkarien deskreditoak –inortxok ez omen ditu bere ardurak onartzen– demokraziaren bihotza hankaz gora jartzen dituzte. Testuinguru honetan irtenbidea oportunitate edo mehatxu bihurtu dezakegu: erreforma demokratikoan sakondu edo aurpegi biguneko faxismo jaioberria berrindartu.**

## Gutunak

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### Lagundu mesed…, txof!

Badira lau urte egunero-egunero, Kurtzebarri eskola ostean, hau da trenbide ertzean dagoen parke edo berdegunean, arratsalde osoak pasatzen ditugula. Lekua paregabea da, belarra, ziburuak, iturria, arbolak, jarlekuak, eta gainera arrisku bako gunea.

Gure haurrek izugarri gozatzen dute arratsaldero eskolako lagunekin, gurasook ere gustura egoten gara, jubilatuek oso gogoko dute eta sarri ikusten dira pasioan edo deskantsuan, baita gazte-nerabeek ere usten dute egondako arrastorik.

Baina berdegune honetako jaun eta jabeak txakurrak dira. Hauek dira gehien erabiltzen dutenak, paseatu, jolastu, eta kaka ere bertan egiteko eskubidea duten bakarrak…, eskubide osoa gainera, ez baitago inor galaraziko dienik. Geuk eta geure umeek ere, bada egunik bertan gaudela kaka gurea etorri eta parkekideak errespetatzea gustatzen zaizkigunez, ondoko tabernako komunak eta komun publikoak erabiltzen ditugula.

Larrialdiren baten, noizbait, haurren batek parkeko izkinatxoren bat erabiltzen du, baina ondoren, kaka batu eta zakarrontzira bota izan da.

Badakigu badirela herrian eta gizartean hau baino arazo sakonagorik, baina egia esan, 4 urtetan bertan egon garenok, konturatu gara, hau ere oso problema serioa dela, ez baitago egunik, haur, guraso, jubilatu edo eta gazteren batek kaka etxera eramaten ez duenik, zapatan, arropan edo eta gorputzeko atalen batean.

Pena da horrelako gune eder batek, erabiltzaileei eman diezaieken gauza nabarmenena, kaka usaia, kaka arrastoa eta kaka mokordoa izatea eta arratsalde gehienetan erabiltzen den hitz komunena kaka izatea.

Uste dugu, gaizki aparkatutako autoak zaintzen dituzten bezalaxe, leku desegokian kaka egiten duten txakurrak zaindu behar lituzketela gure herriko munizipalek eta isunen bidez ohitura txarra zuzendu.

Maite ditugu animaliak, baina guk ere geure umeak zaindu egiten ditugu parkean beharreztenik ez dezaten egin eta uste dugu aukera berbera izan behar dugula denok.

Zelaiak, parkeak, bidegorriak…, eskaintza ezin hobea da aretxabaletarrontzako baina pena da txakur kakaz betetzen direlako behar bezala ezin erabili izatea.

Eta txakurren jabeei irtenbidea zein den galdetu ondoren, txakur-komunak jartzea litzatekeela bidea esaten dute.

KURTZEBARRI ESKOLA ONDOKO BERDEGUNEKO ERABILTZAILE TALDE BAT
Aretxabaleta

### Egunero, orduro eta edozein tokitan

Beste urtebete eta berriz ere ekainaren 28a. Zer esan, aldarrikatu, eskatu, exijitu...?. Norantz begiratu?. Atzera eta gaur arte lortu dena azpimarratu edo aurrera eta falta dena zerrendatu?. Gehienetan artikulu edo karta baten, bakoitzak (pertsona, taldea, elkarteak...) pentsatzen duena jartzen du, besteok, guk irakurleok jakin dezagun.

Gaurko honetan Zutik-ekoek aspalditik eskatzen a jakina denez, beste proposamen bat egingo dizuegu.

Pasadizo hauek irakurri eta…

"Jon eta Mikel bikote dira. Jonek alabatzat hartu zuen neskatilak jada 4 urte ditu. Kiroldegira joan dira eta abonu familiarra eskatu dute".

"Saioak 13 urte ditu. Bere gurasoak orain dela 2 urte banandu ziren. Orain ama kezkatuta dago, buruhauste txiki bat dauka; ez daki zelan jakinarazi alabari bere bikote berria emakumea dela."

"Aimarren gurasoak eskolara joan dira, entrebista dute maisuarekin. Kurtsoan zehar zelan ibili den azaldu eta gero kalerantz doaz batera. Patioan maisuen senargaia itxaroten dago. Elkarri muxu eman eta gerritik helduta doaz".

"Arrasateko kooperatiba bati ISO 9001 eman diotela eta bertako gerentea Amaia Gartzia anderea, bere bikotea den Rosa Etxebarriarekin zuzendu zen izendapen horri dagokion agiria jasotzera".

…datorren urtean egoera hauek egunero, orduro eta edozein tokitan begi onekin ikusiko bagenitu... Primeran!

ZUTIK
Debagoiena

### Mila esker, Kurtzebarrikoei

Aretxabaletan dantza afrikarren ikastaro bat antolatu nahian martxoa aldera leku bila mugitzen hasi ginen. Kultur etxean, dantza eta kirol etxeko txokoak topera zeudela eta, ezezkoa jasotzean, Kurtzebarri eskolara jo genuen. Erantzuna segituan jaso genuen: Arazorik ez astean ordu t'erdiz bertako barruko gimnasioa erabiltzeko. Eskolakoekin tratua pare gabea izan da eta ikastaroa berriz arrakastatsua oso.

Eskerrik asko berriz, lagunok!

MAIER ETXEBARRIA
Aretxabaleta

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE




Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ANTZUOLA

## Kalebarrenen San Pedro jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte jaiak Kalebarrenen. Erromeria izango dugu Ansorregi trikitilariekin, 22:00etan.

Bihar, zapatua, umeendako hainbat ekitaldi egongo dira goiz eta arratsaldez: Marrazki Lehiaketa, ginkana jokoak eta jolasparkea egongo dira, besteak beste.

20:00etan arbola jasoko dute eta gauerdian ohiko sagar-dantza egingo dute.

Bukatzeko, domekan, aipatzekoa da herri kirolak egongo direla arratsaldean, 17:30ean. /A.I.

ARAMAIO

## Datorren astean, Euskal Herria aztergai II. Uda Ikastaroetan

Bigarren urtez Udako Ikastaroak izango dira Aramaion. Diputazioak eta Udalak antolatuta eta Euskal Herriko Unibertsitateak lagunduta, aurreneko mendetik hamargarrenera arteko Euskal Herria eta inguruko lurraldeak aztertuko dituzte. Esate baterako, euskal literatura aztertuko dute.

Eskolak martitzenetik barikura arte izango dira, 16:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere. Euskal Herriko, Espainiako Estatuko eta Frantziako adituak etorriko dira eskolok ematera Aramaiora. /U.M.

ELGETA

## Herritarrendako Squash Txapelketa antolatu dute Uda Kanpainaren barne

Uda Kanpainaren barruan herritarrendako Squash Txapelketa antolatu du Udaleko Kirol Zerbitzuak. 16 urtetik gorako edozeinek har dezake parte txapelketan. Partiduak astelehenetik egubakoitzera artean jokatuko dira, arratsaldez. Pilotak antolatzaileek jarriko dituzte eta, behar izanez gero, baita erraketak ere. Gutxienez zortzi jokalarik eman beharko dute izena txapelketa jokatzeko. Irabazleak bi lagunendako afaria, trofeoa eta xanpain botila jasoko ditu sari gisa. /I.A.



AMAGOIA LASAGABASTER

ESKORIATZA

## Eibarko Armagintza Eskolak antolatutako Teknologia Proiektuen Lehiaketan lehenengo bi sariak jaso dituzte Arizmendi Ikastolako Almen guneko DBHko ikasleek

Eibarko Armagintza Eskolak bigarren aldiz antolatu du Teknologia Proiektuen Lehiaketa DBHko ikasleendako, eta Arizmendiko Almen guneko ikasleek jaso dituzte bi sariak. Lehenengoa *Zubi altxagarria* izeneko proiektuarendako izan da, eta egileak Mikel Muñoz, Itoitz Lezeta, Lorena Muñoz eta Nagore Uriarte izan dira. Bigarren saria, berriz, Igor Larrañagak, Maialen Mirandak, Andi Caceresek eta Aitor Elortzak egindako *Eskuargia* proiektuak jaso du. Epaimahaikoen esanetan, bi lanak berritzaileak izateaz gain oso ondo eginda zeuden. Aurtengo lehiaketan Debagoieneko, Debabarreneko, Lea Artibaiko, Durangaldeko eta Urola ibarreko DBHko hainbat ikastetxetako ikasleek hartu dute parte. /M.A.

OÑATI

# Laixan eta Berria Eguna ospatuko dute bihar, zapatua

Urtero moduan, egun osoko jaia antolatu du Laixan euskara elkarteak. Aurten, baina, Laixan eguna ospatu beharrean, Laixan-Berria Eguna antolatu du; izan ere, egun horretako helburuetako bat izango da sortu berri den *Berria* egunkariari laguntzea. Esan bezala, egun osoko egitaraua antolatu du Laixan-ek biharko.

Goizean goiz hasiko dituzte ekitaldiak: 08:30ean, mendi ibilaldia egingo dute Natur Eskolakoen laguntzarekin. Murgia auzoan hasiko dute ibilaldia, handik Uribarri auzora joango dira, eta Uribarritik Olate aldera jaitsiko dira.

10:00etan, berriz, beste ibilaldi bat antolatu dute. Mendiko bizikletekin egingo dute ibilaldi hori.

Eta ordu horretan bertan, Aloña Mendiko Espeleologia Taldeko kideek kanpandorrea garbituko dute.

12:00etan, txorizoa eta gazta dastatzeko aukera egongo da; eta 12:30ean, kale animazioko talde bat ibiliko da.

14:00etan, *Berria*-ri ongietorria egingo diote. Txalapartariek, bertsolariek, txistulariek eta dantzariek hartuko dute parte ongietorrian.

Herri bazkaria, berriz, 14:30ean izango da. Bazkalostean ere ez dute aspertzeko aitzakiarik izango: kantu zaharrak abestuko dituzte eta txiste kontalarien eta bertsolarien saioak egongo dira.

17:00etan, Koadrilen Arteko Lehiaketa egongo da, eta bukatzeko, 19:00etan kalejira egingo dute. /A.I.

**Zertzelada**

**Egun osoko jaia antolatu du Laixan elkarteak, urtero moduan. Aurten, baina, Laixan Egunaren ordez, Laixan-Berria Eguna antolatu dute.**

BERGARA

# Urteagak itxita segituko du mendiari eusteko proiektua egin arte

Urteaga kaleak denbora luzez segituko du itxita, Udaleko iturrien esanetan. Eperik zehazteko moduan ez izan arren, uda aurretik, behintzat, zabalduko ez dutela aurreratu dute.

Foru Aldundiak Eskusarte harrobi zaharrean izandako lur-jausien arazoa konpontzeko proiektua egiten dihardu. Eta Udaleko iturrien esanetan, hori amaitu eta gero zabalduko dute bidea.

Maiatzaren 10ean izan zen lehen lur-jausia. Horren ondoren, Bergara eta Antzuola lotzen dituen Urteaga kalea ixtea erabaki zuen Udalak. Orduz gero itxita segitzen du. Zirkulazioa ekialdeko saihesbidetik desbideratu dute. /M.B.




MONIKA BELASTEGI

**Antzuola aldera joateko saihesbide berria erabili beharra dago.**

ARRASATE

## Galdutako txakurrak batzeko zerbitzua abian bigarren urtez

Bigarren urtez hitzarmena sinatu dute Arrasateko Udalak eta Bergarako Elurra txakurtegiak galdutako txakurrak batu eta hara eramateko. Horren arabera, Arrasaten galdutako itxura duen txakurren bat ikusiz gero, Udaltzaingora eraman beharra dago, edo haiei abisatu, eta gero, haiek arduratuko dira txakurtegikoei abisatzeaz.

Txakurtegikoek, berriz, hilabetean euren eskuetan dagoen guztia egin behar dute txakurraren jabea aurkitzeko. Bien bitartean, txakurra zaintzeaz arduratuko dira.

ARETXABALETA

## Martitzenean zabalduko dute ile apaindegia Basotxo elkartean

Martitzenean, hilaren 1ean, zabalduko dute Basotxo erretiratuen elkartean ile apaindegia. Horretarako, erretiratuen egoitzako gela bat egokitu, eta hantxe jarri dute Eva Valor ile apaintzaile gazteak behar duen tresneria guztia.

Basotxo elkartea orain dela 25 urte sortu zen, eta ordutik hona Zuzendaritza batzordearen nahia izan da elkarteko bazkideendako ile apaindegia jartzea. Azkenean ere, joan den agintaldiko udalbatzari esker lortu dute ilea orraztu eta mozteko zerbitzua jartzea. /A.L.

LEINTZ GATZAGA

## Herritar asko batu zen San Juan gau magikoa ospatzeko suaren inguruan

Auzoetan nahiz herrian bertan, suaren inguruan elkartu ziren gatzagarrak. Kaletarrek, sua piztu aurretik, urteko gaur motzenean ohiko bihurtu diren sardina eta saiheski errea jateko zortzietan zuten hitzordua jarrita. Lehenengo herritarrak puntu-puntuan heldu ziren. Ardo beltza lagun, sardinak eta saiheski errea gura beste jateko izan zuten gatzagarrek. Eguraldiak askorik lagundu ez zuen arren, 22:00etan sua piztu eta hirutan abestu zioten herritarrek San Juani. /A.G.



## *Txerra Bolinaga*

ROCK MUSIKARIA ETA GAYTASUNA GAY ELKARTEKO KIDEA

# “Izatezko Bikoteen Legea aurrerapausoa da, baina, azken baten, homosexualok ezkontzeko eskubidea izan gura dugu”

Arrasatearra da jaiotzez, baina Gasteizen bizi da Txerra Bolinaga. RIP rock taldeko kideetako bat delako da ezagun, baina baita gay eta lesbianen eskubideen alde modu aktibo eta publikoan lan egiten duelako ere; besteak beste, Gaytasuna taldeko bazkide da. Gay eta Lesbianen Nazioarteko Eguna dela-eta, Txerrarekin egin dugu berba.

LEIRE KORTABARRIA

**Bihar ospatuko da Gay eta Lesbianen Nazioarteko Eguna. Zein izango da aurtengo aldarrikapena?**

Gaytasuna eta EHGAM taldeok lankidetzan dihardugu, eta honako aldarrikapena aukeratu dugu aurtengo: *Sexu, kultura zein erlijio aurreiritzirik gabe, beste mundu bat posible da.* Baina, Gasteizen bertan, tokian tokiko ekimen moduan, beste kritika puntu bat ere sartuko dugu: hain zuzen, jokaera homofoboa erakutsi duten erakundeei kritika, hala nola, Alderdi Popularrari eta euskal elizari. Kale agerraldia Andre Maria Zuriaren plazatik irtengo da, 19:00etan, eta ibarreko jendea animatu gura dut parte hartzera.

**Elizaren jarrera ezkorra aipatu duzu. Zehazki esateko, zer kritikatzen diozue euskal elizari?**

Elizako hierarkiaz nabil, ez sinestunez eurez; fededun eta katoliko diren gay eta lesbiana asko dago, eta horiek errespetatu egiten ditugu, jakina. Elizako buruez eta gotzainez ari naiz. Euskal elizak gizartearen eta errealitatearen ezikusiarena egiten du, eta oso mezu hipokrita zabaltzen du: Jainkoaren aurrean berdintasuna aldarrikatzen du, baina esaten duenaren aurkakoa egiten du elizak. Jende askok gotzainen esana segitzen du, eta horrek kalte eta min egiten digu gay eta lesbianoi.

**Joan den maiatzean onartu zuen Eusko Legebiltzarrak izatezko bikoteen egoera juridikoa arautzen duen legea, eta Alderdi Popularrak aurkako jarrera erakutsi zuen. Horren gainekoak izango dira zuen biharko kritikak?**

Ez hori bakarrik. Alderdi Popularrak, Estatuko gobernutik, oso jarrera homofoboa erakutsi du, ez bakarrik gay eta lesbianon eskubide eta askatasunen aurka egiteagatik, baizik eta nazioarteko erakundeetan izan duen jokabideagatik ere. Nazio Batuetan, adibidez, ez du homosexualen aurkako legeak dituzten herrien aurka bozkatu. Herri askotan homosexuala izateagatik kartzelaratu egin zaitzakete, eta PPk ez du hori salatzen.

**Izatezko Bikoteen Legearen gainean, alderdiek oso aurrerakoi bezala aurkeztu dute. Elkarteek horrela ikusten duzue?**

Estatuko beste erkidegootako legeekin alderatuta, EAEko lege hori eta Nafarroako Legebiltzarrak egindakoak dira aurrerakoienak, eta elkarteok ondo ikusten ditugu, bai.

**Zeintzuk izango lirateke, zuen iritziz, legearen alderdi aurrerakoienak?**

Adibidez, bikote homosexualoi adoptatzeko eskubidea onartzen diguten lege bakarrak dira, eta hori zen, hain zuzen, aurkako jarrera sutsuenak pizten zituen gaia. Beste aurrerapen garrantzitsu batzuk ere baditu legeak: esaterako, ezkontideen tratamendu fiskal bera edo bikotekide bat hiltzean, besteak haren ondasunen usufruktua izango duela onartzen zaigu.

**Zeintzuk dira, bada, legetik kanpo geratzen diren zuen aldarrikapen nagusiak?**

Lege hori ez da, inola ere, homosexualon egoerari azken erantzuna. Hainbat hutsune ditu, bai.

Adibidez, lege horren onuradun izateko, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak horretarako apropos sortutako erregistroan izena ematea. Bestalde, hainbat alderdi ez ditu arautzen: adibidez, bikotekidea atzerritarra baldin bada edo, oro har, bikote batek ezkondu nahi duenean aurreikusten diren aukera guztiak. Kontua da legeak ez gaituela ezkondutako bikoteen berdin egiten, eta horixe bera eskatzen dugu guk, hain zuzen ere: ezkondutako bikoteen eskubide berberak izatea, edo ezkontzeko eskubidea onar diezagutela. Homosexualen eskubideen aldeko mugimenduaren barne, iritzi korronte batek esaten du ezkontza zaharkitutako estruktura dela guretako eta beste aldarrikapen batzuetan indarra egin beharko genukeela; baina nik neuk uste dut ezkontzea, legez, posible izan beharko litzatekeela, gura dutenendako.

**Hori ezin izango luke Eusko Legebiltzarrak arautu, ordea…**

Ez, hori Madrilgo gobernuak arautu beharko luke, eta hor dago oztopo handi bat lege hori inoiz egite edo onartze aldera. Madrilgo gobernuarekiko mendetasuna ez da hor bukatzen; izan ere, Izatezko Bikoteen Legea EAEkoa da, baina eskumenen arazoa dago.

EAEko eta Madrilgo eskumenek topo egiten badute, baliteke legearen hainbat lorpen gauza sinboliko bezala besterik ez geratzea. Izan ere, legea onartu zenean bertan, gai hori bera mahairatu zuten hainbat alderdik; hots, legeak gure Erkidegoko eskumenak gainditzen zituela, eta horregatik uste baino gaitzagoa izango zela praktikara eramatea.

**Adopzioarekin hori gerta daiteke-en arriskua ote dago?**

Bai, gerta daiteke, eta gertatzen ari da dagoeneko. Izan ere, Nafarroako Legebiltzarrak hango Izatezko Bikoteen Legea

### ERAKUNDE HOMOFOBOAK

**“Alderdi Popularrak eta Euskadiko eliza katolikoak homosexualon aurkako jokabidea dute, eta hori salatuko dugu hilaren 28ko agerraldian, Gasteizen”**

### AURRERAKOIENAK

**“EAEko eta Nafarroako izatezko bikoteen legeak dira Estatuko aurrerakoienak, batez ere, homosexualoi adoptatzeko eskubidea onartzen digutelako”**

### ESKUMEN ARAZOAK

**“Eskumenek topo egiten badute, legearen hainbat puntu balio barik gera daitezke: adibidez, ez dugu adoptatu ahal izan duten Nafarroako bikoteen inongo berririk”**

### ERREFERENTZIA EZAGUNAK

**“Homosexualitatearen gero eta eredu publiko gehiago dago, baina baita hutsuneak ere: adibidez, futbolean ez dago erreferentziarik, oso arlo matxista delako”**



ARGAZKI PRESS

onartu zuenetik, ez dugu umeak adoptatu ahal izan dituen inongo bikoteren berririk izan. Beste gauza bat da errealitatea: bikote homosexualokin bizi diren ume asko eta asko dago, bai bikotekideren baten aurreko harreman batekoak, bai kide batek bakarka adoptatu eta gero bikotera ekarritakoak… Betiko moduan, legea errealitatearen atzetik doa.

**Alderdi batzuek aipatu zuten bikote direla froga dezaketen bikote guztiek izan beharko luketela legearen onuradun egiteko aukera.**

Bai. Horrek ere badu ulergaitza egiten zaidan alderdi bat, hain zuzen ere, bi pertsona luzaroan bikote diren lekukoak eta guzti aurkeztu behar direla… zer dela-eta lekukoak behar izate hori?

**Lege aldetik aurrerapausoak eman dira. Zer deritzozu gizartearen jarrerari?**

Asko aurreratu da, hori zalantzaz kanpo dago. Gaur egun, *normaltasunez* irteten diren sexu preferentziak dituen pertsona batek badu nora eta norengana jo: badaude hainbat elkarte, gizabanako eta jende aurreko erreferentzia ezagun. Hori horrela bada ere, ordea, sakonean dagoen homofobia sentimendu bat ere badago gizartean. Aldatu dena da gaur egun ez dela politikoki zuzena homosexualon aurka zaudela esatea, baina errealitatea hori da. Adibidez, *marikoi* iraina entzuten jarraitzen dugu, eta iraingarria dena ez da hitza bera, baizik eta ahultasun jarrera bat duena iraintzeko erabiltzen dela. Jende askok, itxuraz, onartzen edo toleratzen du homosexualitatea, baina ez du errespetatzen.

**Izatez, mondragoetarra zara, nahiz eta Gasteizen bizi zaren. Oraindik ere, gogorragoa da herri baten homosexuala izatea hiri baten baino?**

Bai; eta kontuan hartu behar da Arrasate ez dela hain txikia, baina hiri batekin alderatuta, oraindik ere aldea sumatzen da. Jakina, herri txikiagoetan askoz gaitzagoa da. Ez bakarrik guztiek elkar ezagutzen dutelako, baita erreferenterik ez dagoelako ere, ez delako argitalpenik edo homosexualon aldeko mugimendurik iristen… Beldur handiagoa dago herrietan. Elkarteok gurako genuke leku guztietara iritsi, baina, tamalez, ezin dugu gura beste gauza egin.

**Erreferenteak aipatu dituzu. Zu zeu ezaguna zara, RIP taldeko kide bezala, eta militantea zara. Zure iritziz, zenbateko garrantzia du bi alderdi horiek lotuta joatea?**

Oso garrantzi handia. Jendearendako ezinbestekoa da homosexualitatearen erreferentzia publikoak izatea, batez ere, esan bezala, leku txikietan bizi direnendako. Hor ere aurrerapauso handiak egin ditugu azkenaldian. Geroago eta jende gehiagok eman du aditzera homosexuala dela, eta nortasun zeinu hori isilpean bizi duen jende asko eta asko horiekin identifikatu da eta euren bakardadea apurtzen lagundu die horrek, konturatu direlako homosexuala izatea ez dela arraroa, horrelako asko garela, eta gay izan daitekeela normaltasun eta harrotasun osoz. Erreferenteak funtsezkoak dira.

**Hala ere, hutsuneak ere sumatzen dira; adibidez, hainbat alorretan ez dago ia erreferentziarik…**

Bai, hala da. Homosexualon *ikuspena* edo homosexualitatearen fenomenoa zenbateraino den publikoa, termino horretaz ari garenean, gizonezkoon ikuspenaz ari gara, batik bat. Lesbianen kasuan, egoera askoz txarragoa da, ez dago-eta ia erreferente ezagunik. Hori alde batetik. Bestetik, gizonezkoon kasuan ere zerbait gaizki dabilen seinaleak daude. Adibidez, kiroleko edo, zehazkiago esateko, futboleko gay erreferenterik ez dago. Zergatik gertatzen da hori? Bada, oso mundu matxista delako. Horrek erakusten digu zerk edo zerk huts egiten duela oraindik eta aurrerapen handiak egin behar direla.



ARGAZKI PRESS

## "Gay izateagatik kartzelaratu egin zaitzakete leku askotan"

**Eusko legebiltzarrak onartu berri duen Izatezko Bikoteen Legeak zein aurrerapen mailatan kokatzen gaitu?**

Estatuko egoera oso-osorik hartuta, Europako beste herri batzuekin alderatuta maila ertainean gaudela esango nuke. Baina Euskal Autonomia Erkidegoa bakarrik hartzen badugu kontuan, maila apur bat altuagoan geundeke, 6 edo 7 baten. Oraindik, mentalitate askoz aurrerakoiagoa duten Europako herrialdeen mailatik urruti gaude: Belgikan, adibidez, homosexualak ezkondu egin daitezke; eta egoera oso ona da Herbeheretan, Suedian, Danimarkan…

**Munduko beste leku askotan baino hobeto gaude, ordea, ezta?**

Tamalez, herrialde asko eta askotan harreman homosexualak izateagatik kartzelara eraman, torturatu edo hil egin zaitzakete. Mexikon, Brasilen, Iraken… homosexuala izateak egoera dramatikotara eraman zaitzake. Egunero jasotzen ditugu elkarteok horrelako ehunka albiste, baina horretaz ez du inork berba egiten.

**Kale agerraldietan izan ezik…**

Bai, baina oraindik jendeari asko kostatzen zaio agerraldiotara joatea. Espero dut bihar debagoiendar askok Gasteizko agerraldiarekin bat egitea.

# Chat eta Centeno txapeldun

## Ikusleek gogotsu animatu zituzten korrikalariak Oñatiko kaleetan

**Oñatin lehen aldiz jokatu da aurten krosa, eta ez nolanahikoa, gainera. Munduko goi mailako atletak ibili ziren herriko kaleetan antxintxika. Hala, amaieran, Hicham Chat, gizonezkoetan, eta Yesenia Centeno, emakumeetan, nagusitu ziren Oñatiko Foruen plazako helmugan.**

Atletismoan izar diren atleta ugari ibili ziren zapatuan Oñatiko kaleetan korrika. Atletek 5.000 metroko ibilbidean antxintxika ziharduten bitartean, kale bazterretan zeuden oñatiarrek eta lasterketa ikustera bertaratutakoek animu asko eman zizkieten.

Gizonezkoetan 21 partaide izan ziren; hala, Camel Zianik, Hicham Chat-ek, Alejandro Gómezek, Javier Cortések, Iban Sánchezek, Martin Fizek eta Teodoro Cuñadok osatutako zazpikotea lasterketa buruan ibili zen hasierako itzulietan. Baina lasterketa erdian Cuñado eta Fiz atzean geratu, eta taldea txikitu egin zen.

Amaiera Alejandro Gómezen eta Hicham Chat-en arteko lehiak erabaki zuen: helmugarako 2.000 metro inguru falta zirela Gómezek erritmoa bizitu zuen eta Chat-ek bakarrik jarraitu zion. Azken zatian, baina, marokoarrak abiada bizitu eta Gómezek ezin izan zion haren erritmoari eutsi. Hicham Chat, hortaz, aurrena iritsi zen helmugara, lasterketa 13 minutu eta 47 segundoan amaituta. Alejandro Gómez izan zen bigarren, hiru segundora, eta Kamel Ziani oriotarra hirugarren, 18 segundora.




GOIENKARIA

**Gizonezkoetan 21 parte-hartzaile izan ziren; emakumeetan, bost.**

**EMAKUMEAK**

Emakumezkoen lasterketan bost lasterkarik baino ez zuten parte hartu; hala, hasierako birak lasai antzean egin ondoren, erritmoa bizitu eta hiru lagun geratu ziren buruan: Yesenia Centeno, Jaqueline Martín eta Teresa Pulido. Nieves Zarza eta Rakel Llamas atzean geratu ziren. Itzuli gutxi falta zirela, Teresa Pulidok utzi egin zuen lasterketa, eta garaipena Martínek eta Centenok esprintean erabaki zuten. Eta Centeno izan zen nagusi, 16 minutu eta 33 segundoko denborarekin, bigarrenari segundo bakarra aterata. Eta Raquel Llamas eta Nieves Zarza sailkatu ziren hirugarren eta laugarren, hurrenez hurren.

Oñatiarrek maila handiko atletismo proba ikusi zuten eta antolatzaileak ere oso gustura geratu ziren krosarekin: “Atleta oso onak etorri dira eta jendeak ere ondo erantzun du. Beroarengatik plazan jende askorik egon ez arren, zirkuitoan herritarrek gogoz txalotu zituzten korrikalariak”.

Proba hain arrakastatsua izan zela ikusita, datorren urtean, seguraski krosa antolatuko dutela esan digu Jesus Arregi lasterketa hau antolatzen buru belarri ibili den oñatiarrak.



## Ibai López, abiadura bizian ‘dirt surf’-ean

Elgoibarren, Azkarateko bide zaharrean, *dirt surf* txapelketa jokatu da orain dela gutxi. Jatorri australiarra duen kirol horrek abiadura du oinarri. Bizikletaren eta *snowboard* egiteko taularen arteko konbinazioa den metalezko tresna batekin aldapetan behera jarduten dute *dirt surf*-ean. Proban, 34 partaidek Azkarateko aldapak abiadura bizian jaitsi zituzten. Amaieran, Ibai López bergararra izan zen irabazle.

## Kirolabur

### MENDIA/ARRASATE

Besaide elkarteak mendi zeharkaldia antolatu du uztailaren 5ean eta 6an. Lehenengo etapa, zapatukoa, Lizarra eta Candanchu bitartekoa izango da eta bigarrena, domekan egingo dutena, Astun eta Bious Artigues artekoa. Mendizaleak uztailaren 5ean irtengo dira, Garibai etorbidetik, 07:00etan, eta eguraldia lagun izanez gero, Pirinioetako paisaiez gozatzeko aukera izango dute. Izena emateko Besaideren egoitzara jo beharko da ekainaren 30ean edo uztailaren 1ean.

### TXIRRINDULARITZA/OÑATI

Erlojukontrako Euskadiko Txirrindulari Txapelketa jokatu zen, joan den eguenean, Urturin (Araba). Orbea-Olarra-Consultec taldeko Markel Irizar oñatiarra faborito zen proba irabazteko, baina seigarren geratu zen. Irizarren aurretik sailkatu ziren bere taldekide Javier Ruiz de Larrinaga eta Iker Mezo, laugarren eta bosgarren postuan hurrenez hurren. Txirrindulariek 36 kilometro inguruko ibilbidea egin behar izan zuten, gorabeheraz eta zuzengunez betea. Amaieran, Jon del Río tolosarra izan zen Euskadiko txapeldun, Jokin Ormaetxeari esprintean irabazita.

### FUTBOLA/ARRASATE

Emakumeen futbola indarrean dagoen honetan, ibarrean fitxaketa baten berri izan dugu. Datorren denboraldian, Arrasateko Larraitz Kortabarria futbolari gazteak Athleticeko nesken taldean jokatuko du. Txikitatik dihardu futbolean, eta azken urteotan Mondra taldean jardun du Larraitzek, Esti Loiti entrenatzailearen agindupean. Aldaketa handia izango bada ere, talde handi batek fitxatzeak poz handia eman dio. Hain zuzen ere, abuztuaren 2an hasiko du aurredenboraldia Athleticeko nesken taldeko B mailan.

### KARATEA/DEBAGOIENA

Gaur hasi eta domekara arte, Debagoieneko hainbat karateka gaztetxo Arabako Espejo herriko aterpetxean elkartuko dira, eta kontzentrazioa egingo dute han. Arrasate, Bergara eta Aretxabaletako karatekak izango dira, 50 inguru. Ordubeteko entrenamenduak egingo dituzte bertan, guztiak kanpoan. Horrez gainera, bada bat berezia izango dena: izan ere, errekan sartuta egingo dute, leku batzuetan gerrira arteko urarekin. Aste bukaeran, hortaz, karatea hobeto ezagutzeko aukera izango dute hainbat debagoiendarrek.



### ARKU TIROKETA/BERGARA

Fernando Markina bergararrak beteranoen mailako Espainiako Txapelketa irabazi du arku tiroketan. Madrilen jokatu zen txapelketa, eta poleadun arkuarekin jardun zuen bergararrak. Fernando Markinak hiru aldiz hartu du parte txapelketan, eta hiruretan izan da lehenengo. Gainontzean, inguruko herrietan izaten diren txapelketa edo arku tiroketa saioetan ere hartzen du parte bergararrak. Orain arte Legazpiko taldeko kide izan da, baina orain dela gutxi Bergaran zortzi lagunek Gezi bat taldea osatu dute.

TABERNA-BERRI
JATETXEA

**Hasierakoak**
Beso-urdaizpiko iberikoa
Askotariko frijituak
Gula-entsalada

**Bigarrena**
**(aukeratzeko)**
- Ahate-konfita
- Txerri-ukondo errea
- Txahal-eskalopea
- Legatza albardatuta

**21€**

**Postrea**
**(aukeratzeko)**
- Limoi-sorbetea cavarekin
- Gazta-tarta
- Profiterolak txokolate beroarekin

**Kafea**
**Ardoa**
Marques de Vitoria
(kriantza)

Enpreza Bazkariak
Eguneko Menua
Karta Zerbitzua
Ospakizun Bazkariak...

TABERNA-BERRI
JATETXEA

Durana kalea 26
Tel.: 943 79 20 67
943 79 49 41
Posta-e:tabernaberri@terra.es
ARETXABALETA

gaztemenuak
preziogazteak
aste buruetarako gazte menuak
egin zure aukera


Veranoski
EROSKi
Grupo Eroski
Erosten Jakin

# TXURI-URDIN

Egubakoitza / 2003ko ekainaren 27a / GOIENKARIAren gehigarri berezia



## ZALE ONENAK

XABI URZELAI


BATVAK, S.A

• Mekanizazioak eta konponketak oro har

• Tornuak eta fresatzeko makinak - CNC

• Arteztеko makinak

BAT BI HIRU LAU BOST SEI ZAZPI REAL

Zubillaga 12 • Industrialdea
Tel.: 943 78 11 15 / Faxa: 943 71 82 50
e-maila: batuak@batuak.com
20560 OÑATI

gure partetik

ARRASATE TXURI-URDIN

BONBA TALDIE

IGOA BERRI

Basati eta Monte
tabernen laguntzarekin

eskerrik asko ARRASATE!

Aupa Reala!

PROIEKTUA - DEKORAZIOA

Ipar
project, s.l.

SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA







BAT BI
HIRU LAU
BOST SEI
ZAZPI
REAL

*Zure sukaldea eta bainugela berritzeko eta hornitzeko* ***Ipar Project*** *aukeratzeak* ***segurtasuna*** *eta* ***abantailak*** *dakartza:*

- Altzarietan, osagarrietan eta zeramikan duen aukera zabal eta bariatuagatik
- Kalitateagatik
- Saldu osteko zerbitzuagatik
- Lantalde profesionala delako lan egiterako orduan, dekoratzerakoan eta altzairuz hornitzerakoan

***Konproba ezazu! Zure zain gaude!***

Bergarako Industrialdea • Telleria 23 - 5D Pab. • Tel.: 943 76 98 30 • Faxa: 943 76 52 44 • **BERGARA**

■ **ROBERTO OLABE** / REALEKO KIROL ZUZENDARIA

# “Une txarrenetan, zaleek ezeren truke erantzun dute”

ENEKO AZKARATE

**Roberto Olabe da Realaren denboraldi bikainaren giltzarrietako bat. Hark atera zituen txuri-urdinak zulotik iaz eta hark ekarri zuen Donostiara Raynald Denoueix frantziarra. Jatorri aretxabaletarra duen gasteiztar horrek Zubietako bulegoetan egindako lan onaren ondotik etorri dira garaipenak eta pozak.**

**Zein izan da aurtengo Liga Txapelketako talde onena?**
Geurea, Reala.

**Eta jokalari onena?**
Igor Jauregi.

**Zergatik ez du Liga Realak irabazi?**
Madrilek baino puntu bi gutxiago izan ditugulako. Joko ona egin eta puntu asko atera ditugu 38 jardunalditan, baina ez Madrilek beste puntu.

**Vigon galdu zuen Realak Liga?**
Ez. Vigon partidu bat galdu genuen.

**Batzuek diote Realeko jokalariek ezin izan diotela azken partidutako presioari aurre egin. Ados?**
Ez, ez, ez, hori ez da egia. Realeko jokalariek sekulako lana egin dute, eta askoren komentario edo iritzi txarren gainetik jardun dute.

**Realak aurten jokatu duen partidu onena?**
Ez nuke bat nabarmenduko. Taldeak denboraldian barrena egin duen jokoa azpimarratuko nuke.

**Roberto Olabe izan da Real berri honen garaipenen giltzarri?**
Denok daukagu emaitza on honetan erantzukizun zati bat.

**Zenbaterainoko garrantzia izan du Denoueix entrenatzaileak Realaren berpizkundean?**
Garrantzi handia, baina Zamorak, Masachek, Manzisidorrek… bestekoa.

**Izaerarengatik, gipuzkoarra dirudi Denoueixek.**
Tipo normala da. Gipuzkoarrok gurago dugu egin esan baino, eta Denoueixek ere bai.

**Real Madrilgo jokalariak *galaxiakoak* badira, Realekoak?**
Gipuzkoarrak, Euskadikoak.

**Madrilek Liga irabazi du, baina entrenatzailea eta kapitaina bota egin dituzte…**
Geurea zaintzearekin nahiko daukagu.

**Beckhamekin irabazi egingo du Madrilek?**
Beckhamekin beste jokalari handi bat izango du Madrilek.

**Eta Realak Alkizarekin?**
Realak asko irabazi du oraingo jokalariekin. Hortik aurrera, datorrena datorrela.

**Zer jokalari behar ditu Realak Europako Txapeldunen Ligarako?**
Jokalari langileak, konpetitiboak, sutsuak, etengabe hobetzeko ahaleginak egiten dituztenak…

**Kovacevicek, Nihatek, Xabi Alonsok, De Pedrok… Realean segituko dute?**
Jokalari onenek segi dezaten gura dugu, eta horiek kontratuak dituzte Realarekin. Ikusiko dugu...

**Zein talderen kontra gura zenuke Txapeldunen Ligan jokatu?**
Edozeinen kontra. Gutxienez lau partidu jokatuko ditugu Anoetan Txapeldunen Ligan, eta horrek disfrutatzeko aukera emango digu.

**Aurten, Liga hasi aurretik, mailari eustea zen helburua. Datorrenean?**
Espainiako Ligan, lehen mailan, onenen artean lehiatzea da Realaren helburua eta partiduz partidu erronka berriei eustea.

**Zaleek erakutsitako portaera espero zenuen?**
Azken hiru urteotan, une txarrenetan, zaleek ezeren truke erantzun dute. Aurten, taldeak erantzun duenean ere, gurekin egon dira beti.

**Zerk harritu zaitu gehien azken egunotako jai ospakizunen artean?**
Harritu ezerk ez, zaleek sekulako portaera izan dute-eta. Hala ere, nabarmendu gura dut Vigon izan zuten portaera: horrenbeste jende haraino joan, halako jokabidea erakutsi, bai partiduaren aurretik baita ostean ere, eta partidua galdu arren, hala erantzutea… Harro gaude dauzkagun zaleekin.



**“Gipuzkoarrok gurago dugu egin esan baino; Denoueixek ere bai”**

**“Reala izan da Ligako talde onena eta Igor Jauregi jokalari onena”**

BILTOKI
BILTOKI ASPIZA S.L.

| | | |
|---|---|---|
| **Elektrikako tresnak** | Barrenkalea, 6 | Tel.: 943 76 25 96 |
| **Opariak** | Barrenkalea, 12 | Tel.: 943 76 04 72 |
| **Dekorazioa** | San Martin plaza | Tel.: 943 76 43 51 |
| **Sukaldeak eta bainuak** | San Pedro plaza | Tel.: 943 76 34 00 |

BAT BI HIRU LAU BOST SEI ZAZPI REAL

■ GURE TXURI-URDINAK: REKARTE, BARKERO ETA ARANTZABAL

# Ibarreko hiru jokalariekin Realaren gainean berbetan

XABIER URZELAI

**Taldeko kapitainak bisitan joateko egin digun gonbita aprobetxatuta, Aitor López Rekarterekin eta Jose Javier Barkerorekin egoteko ere aprobetxatu dugu. Biharamun apur batekin azaldu dira, ospakizunetan eman dituzte-eta azken egunak.**



ENEKO AZKARATE

Realean jokatzen duten ibarreko hiru jokalariendako denboraldia luzea izan da, eta orain, oporrak besterik ez dute buruan.

Liga Txapelketa amaituta, ez da batere erraza Realean jokatzen duten ibarreko hiru jokalariekin bat egitea. Agustin Arantzabalen etxe azpian elkartu gara, eta han azaldu dira hiru jokalariak, nekatu aurpegiarekin. Agustin muleta barik etorri da: "Aspertu naiz dagoeneko", dio irribarrez, baina herrenka dabil.

Tolosa etorbidearen ondoan dagoen parketxo batera joan gara argazkiak egitera, eta Madrilgo taldean izan diren tira-biren gainean berba egin eta gero, Realaren gainean hasi gara berbetan. Hasteko, Liga Txapelketa amaitu eta gero zein sentsaziorekin geratu diren galdetu diegu hiru jokalariei. Bergararrak, Agustin Arantzabalek, gustura geratu dela esan digu, balorazio positiboa egin behar dela: "Liga Txapelketa bigarren postuan amaitu dugu, eta datorren urtean Txapeldunen Ligan izango gara. Hori Realarendako oso gauza ona da, eta alde horretatik zer ospatu badugula uste dut". Aitor Lopez Rekarte eta Jose Javier Barkero ere bat datoz kapitainarekin; egun hauetan bizi izan dituzten ospakizunak sekulakoak izan dira, egin duten denboraldiaren erakusgarri.

#### JARRAITZAILEEN BEROTASUNA

Jose Javier Barkerok zaleek izan duten jarrera azpimarratu gura izan du: "Ikusgarria izan da zaleek zelan animatu gaituzten, asteleheneko ospakizuna sekulakoa izan zen, baita domekakoa ere, eta Vigoko partidua ere luzaroan izango dugu gogoan".

Azken asteotan guztion ahotan izan da Vigoko partidua. Hamar mila lagun joan ziren Galiziaraino taldea jarraitzera, eta hori sakrifizio handia da. Gure ibarreko jokalariek zelan jokatzen duten ikusteko, baina, hamabostean behin ordubeteko bidaia egin behar izaten dute inguruko jarraitzaileek, eta horrek ere sekulako meritua dauka: "Horrek ase egiten gaitu, gure herriko jendea futbol zelaian ikusteak, eta hori bereziki eskertzen dugu", dio Aitorrek.

Anoetara jokalari aretxabaletarra animatzera joan direnek gura baino aukera gutxiago izan dute. Barkerok ez du gura beste jokatu, gaitza da ezker hegalean titular izatea; izan ere, De Pedro

IAM
Sarpen eta hari bidezko elektrohigadura.
IAMMEK
Abiadura handiko mekanizatuak
IAMCUT
Ur-zorrotada bidezko mozketak
GRUPO IAM
Amillaga 10. PK 175 Bergara
Tel.: 943 76 91 00
Faxa: 943 76 29 49
www.iam.es
BAT BI HIRU LAU BOST SEI ZAZPI REAL

# Realeko hegalak, Debagoienekoak



EDU MENDIBIL
Kazetaria

**Arantzabalek eta Rekartek zerikusi handia izan dute Realak egin duen denboraldi bikainean. Biak Denoueix entrenatzailearen finko izan dira, Ligako lehen zatian jendeak buruz ikasi zuen hamaikako hartan. Arantzabalek eta De Pedrok ezker hegalean primeran elkar ulertzen dute, eta beste horrenbeste esan daiteke eskuinaldean jokatzen duen Rekarte-Karpin bikoteaz. Arantzabalek eta Rekartek izan duten garrantziaren adierazgarri, Westerveld ateizanarekin batera Ligako minutu guztiak jokatu dituen jokalari bakarra izan da arrasatearra (Arantzabalek beste urte batzuetan lortu izan duen marka eta aurten zoritxarreko lesio batek zapuztu duena). Horrez gainera, taldeko kapitainak izan ditugu: Arantzabalen lesioaren ondorioz, Rekartek hartu du haren lekukoa. Biek ere etxean izan dituzte maisu onenak, eta *Gaztelu*-k eta Luis Mari López Rekartek euren garaian lortu zuten moduan, pisuzko jokalariak ditugu gaurko Realean.**

**De Pedro aurrean izanik, Barkerok jokatzeko aukera gutxiago izan du. Gabilondo eta Barkero izan dira De Pedroren ordezkoak, Antiguokoak huts egin duen bakoitzean. Hala ere, Barkerok ez du, beharbada, barruan daraman guztia azaltzerik izan, eta zaleen artean era guztietako iritziak izan dira aretxabaletarrak jokatu izan duenean. Datorren urtea erabakigarria izango da Barkerorendako, eta gazte mailatik antzeman izan duen jokalaria baieztatu beharko du. Ligan eta Kopan ez ezik, hirurek erronka paregabea izango dute Txapeldunen Ligan ere.**

**"Gure herriko jendea futbol zelaian ikustea bereziki eskertzen dugu"**

AITOR LOPEZ REKARTE

**"Ezker hegalean jokatzea ez da erraza, baina jokatu dudanean gustura ibili naiz"**

JOSE JAVIER BARKERO

**"Buruan daukadan gauza bakarra aurredenboraldia egin ahal izatea da"**

AGUSTIN ARANTZABAL

eta Gabilondo postu beragatik daude lehian. Jokatu duenean, baina, aretxabaletarrak norgehiagoka txukunak egin ditu. Jende askok dio Barkerok minutuak behar dituela: "Egia da ez dudala gura beste jokatu, baina taldeko partaide sentitu naiz, eta besteek bezain gogor entrenatu naiz. Horrez gainera, jokatu dudanean gustura ibili naiz, eta datorren urtean ere jokatzeko egingo dut lan".

Arrasatearrak, berriz, ia partidu guztiak jokatu ditu, eta Ligako azken txanpan kapitain lanetan ibili da. Karpinekin batera denboraldi biribila egin du eskuin hegalean: "Egia da Karpinekin ondo moldatu naizela. Orain arte ezker hegaletik bakarrik eraso egiten genuen, eta aurten eskuin hegaletik eraso egitea ere lortu dugu. Horri esker taldeak aukera gehiago izan ditu".

Hiru jokalariondako denboraldi luzea izan da. Oporrak hartzeko gogoz daude eta, bide batez, futbola aste batzuetan, behintzat, ahazteko. "Hala ere, hondartzan baloi bat ikusten badut seguru ostikada bat emango diodala", dio Aitorrek barrezka. Agustinek, tamalez, beste helburu batzuk ditu: "Orain buruan daukadan gauza bakarra aurredenboraldia egin ahal izatea da. Gogorra izan da azken partiduetan taldetik kanpo egotea. Gauzak horrela, datorren denboraldia ondo hasi gura dut".

Aurten ere Austrian egingo du aurredenboraldia talde txuri-urdinak, eta hirurek ere badakite Austriara ez direla oporretara joango. Barkerok esan digu joan den urtekoa sekula egin duen aurredenboraldi gogorrena izan zela: "Ez nuen uste Austrian egindako lana horren garrantzitsua izango zenik. Egia da han egin genituen lan-saioak gogorrak izan zirela eta jokalariok leher eginda amaitzen genuela eguna. Lan horren emaitzak gero ikusi dira eta aurten ere, seguru, gogor egin beharko dugula lan".

Datorren urtean taldeak guztia beharko du, Reala hiru txapelketatan izango da-eta. Taldeko kapitainak argi dauka datorren urtea gogorra izango dela: "Gogorra izateaz gain, urte polita izango dela uste dut. Maila onean egoteko gogor egin beharko dugu lan. Horrez gain, ordezko jokalariek berebiziko garrantzia izango dute".

Realeko jokalariek hilabete eskas izango dute oporretarako. Uztailaren 21ean bueltatuko dira lanera, eta lehenengo astea Zubietan egin eta gero, Austriarako bidea hartuko dute. Han aste bi egingo dituzte, eta taldeak arlo fisikoari emango dio lehentasuna. Lehen ere esan dugu jokalariek oporretan futbola alde batera uzteko asmoa daukatela. Hala ere, Aitorren esanetan kirol apur bat egitea komeni da: "Lanean hasi baino aste bat lehenago etorriko naiz, eta kirol apur bat egingo dut nire kontu. Ez da komeni hutsetik ehunera bat-batean pasatzea, gogorragoa egiten da-eta".



Lesio bategatik, Arantzabal kapitainak ez du azken partiduak jokatzerik izan.



Rekartek ausardia aparta erakutsi du gora egiteko orduan.



Barkerok 574 minutu jokatu ditu ligan. Argazkian, Espanyolen aurka Anoetan.

TALLERES Carpinsa S.L.

• Punten fabrikazioa
• Kako-iltzeak
• Altzairuzko azazkalak

BAT BI
HIRU LAU
BOST SEI
ZAZPI
REAL

Lizeaga 9 - San Lorentzo Industrialdea • BERGARA • Tel.: 943 76 52 68 / Faxa: 943 76 52 68

■ VIGO / EKAINAREN 15a

# Bidaia gogoangarria, liga ez ekarri arren



JULEN IRIONDO
Kazetaria

Ikaragarria. 10.000 lagun elastiko txuri-urdina soinean: Arrasatekoak, Oñatikoak, Bergarakoak, Zarauzkoak, Beasaingoak, Donostiakoak... 10.000 eztarri "Real!, Real!"-ka urratu beharrean: kalean, autobusean, tabernetan, jatetxean, hoteletan… Zapatu eguerdian, arratsaldean, gauean; domeka goizaldean, arratsaldean, iluntzean: 36 orduz, Vigo Realzale! Hori bada! Hura Donostia balitz sikiera… baina Vigon?

Ilusioa, harridura, festa (ajea), irrika, pena, emozioa... berba asko behar dira Galizian bizi izandakoa deskribatzeko.

Ilusioa: zapatu goizean autobusa hartu eta aurretik hamar orduko bidaia izan arren, gogotsu ginen guztiok; harridura: Gipuzkoako hainbat tokitatik iritsitako milaka Realzalek hartua zuten Vigo, era guztiz baketsuan; festa: asteburu osoa ia etenik gabeko parranda izan zen askorendako; irrika: ordu gutxi barru Reala izan zitekeen Ligako txapeldun; pena: Reala ez zen Celta menderatzeko gauza izan eta Real Madrilek irabazi egin zuen; emozioa: partidua galdu arren, inor ez zen mugitu, jokalariei euren ahalegina eskertu behar zitzaien.

Eta bertakoekin, zer? Bertakoekin ere primeran. Neurketa amaieran ia barkamena ere eskatu ziguten askok. Aurretik denek gauza bera zioten: "Zuek txapeldun eta gu Txapeldunen Ligara". *Txapapoteak* bakarrik ez gintuen lotzen. Lagun onen gisan ibili ginen, elkar ondo ezagutuko bagenu bezala. Ez zen horrela: domeka arratsaldean itxi egin behar izan zituzten tabernak; ez zen edatekorik geratzen. Akaso, hobeto.




Gure ibarretik jende piloa joan zen Vigora, Celtaren aurkako partidua ikustera. Argazkian, bergarar talde bat.




Ibarrekoak, zegamarrak... denak Realarekin.



Vigo txuri-urdinez margotu zuten zaleek.



Debagoiendarrak, Nihatekin. P. MARTINEZ / 'EL MUNDO DEPORTIVO'



Gozoa gazi bihurtu zen partiduaren amaieran.

Kartoi ondulatuen fabrikazioa
Ontzien eta enbalajeen fabrikazioa
Cartonajes Arregui, s.a.
Goribar z/g Auzoa
Tel.:943 78 05 59 / 943 78 05 09
20560 OÑATI
comercial@cartonajesarregui.es

BAT BI
HIRU LAU
BOST SEI
ZAZPI
REAL

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA



HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

# ENPRESARA APLIKATUTAKO HUMANITATEEN ARLOKO ESKAINTZA

**Enpresaren ikuspegi orokor batetik abiatuta pertsonen eta taldeen kudeaketa integrala du helburu.**

## IKASKETA ARAUTUAK

### HUMANITATEAK-ENPRESA LIZENTZIA

- 4 urteko lizentzia
- Beste karreretako diplomadun eta lizentziadunentzat aukera Egokitze Kurtsoa egin eta zuzenean 2.ziklora pasatzeko

## GRADUATU-ONDOKO IKASKETAK

Pertsonen Garapena eta Kudeaketa Estrategikoa Masterra

# HEZKUNTZA ARLOKO ESKAINTZA

**Hezkuntza eremuan lan egin nahi baduzu, Mondragon Unibertsitateak aukera guztiak eskaintzen dizkizu, eskolako irakasle izatetik ikertzaile izaterainokoa. Zuk aukeratu zertan aritu nahi duzun: irakasle-hezitzaile, kudeatzaile, aholkulari, bitartekari edota ikertzaile lanetan.**

## IKASKETA ARAUTUAK

### IRAKASLE IKASKETAK

Espezialitateak:

- Haur Hezkuntza (lehen eta bigarren diplomatura)
- Hezkuntza Berezia (lehen eta bigarren diplomatura)
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa
- BERRIA! Hezkuntza Fisikoa

### PSIKOPEDAGOGIA

(on-line eta presentzialak - Eskoriatzan nahiz Bilbon-)

Espezialitateak:

- Hizkuntzen Psikopedagogia
- Eskuhartze Psikopedagogikoa

## GRADUATU-ONDOKO IKASKETAK

Informazio eta Komunikaziorako Teknologiak Formazioan Masterra

Hezkuntza Erakundeen Zuzendaritza Masterra

Hizkuntzen Kudeaketa Aditu Ikastaroa

Entzumena eta Mintzaira Aditu Ikastaroa

HUHEZI Koop.E.
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Dorleta auzoa, z/g • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 71 41 57 • Faxa: 943 71 40 32
e-posta: sarrera@huhezi.edu web: www.huhezi.edu

■ DEBAGOIENEKO REALZALEAK

# Txuri-urdinek ere sekula ez d



**ANDONI AZKARGORTA**
**Futbol entrenatzailea / Antzuola**

Realeko zale leiala. 15 urte zituela egin zen bazkide, eta ordutik hona Anoetako partidu guztietara joaten da. Aranburu oso gustuko du: "Isil-isilik izugarrizko lana egiten du". Aurtengo denboraldiaren gainean zera dio: "Lan handia egin dute jokalariek, entrenatzaileak eta talde tekniko osoak".




**ALBERTO UNTZALU**
**Entrenatzailea / Aramaio**

Orain dela urte bi egin zen Realeko abonatu, eta jakina, domekan ere Donostian egon zen. Taldeak aurten izan duen aldaketa entrenatzaileari, Karpini eta beste hainbat jokalariri zor zaiela uste du, "beste mentalitate bat" eman diotelako. Datorren urtea historikoa izango dela uste du.



**ARATZ, AITOR, ASIER, GORKA ETA JULEN**
**Jarraitzaile finak / Gatzaga**

Hemen, buruan Reala besterik ez daukan mutiko koadrila. Domeka gauean elkarrekin afaldu eta nagusi askok baino emozio handiagorekin segitu zuten partidua. Nihat, *Bonba* eta Kovacevicen aldekoak dira. Datorren denboraldian Anoetara joango direla diote etengabe umeok.



**MAITE MANDALUNIZ**
**Realzale amorratua / Elgeta**

Etxetik datorkio zaletasuna Maiteri. Partiduak telebistaz segitzen ditu eta anaia Anoetara joan ezin denean berak ordezkatzen du. Aurtengo denboraldiarekin pozik dago: "Vigoko partidura arte ilusioz segitu dugu taldea, baina gero bigarren postuarekin konformatu behar".



**AITOR ETA JOSU AZKARATE**
**Realeko jarraitzaileak / Arrasate**

Aitorrek eta Josuk txuri-urdin jantzita eman dute denboraldia. Realeko elastikoa kendu ere ez dute egin, Realzale amorratuak dira-eta. Txapeldunen Ligan Realak Milango Interren kontra jokatzea gura du Aitorrek; Josuk, berriz, Manchester gura du kontrario, Beckham ez dagoelako.

**SALVA RODRÍGUEZ ETA GORKA GABILONDO**
**Arlutz taberna / Aretxabaleta**

Arlutz tabernako Salvak De Pedro du jokalari gustukoen. "Kovacevicek ez lituzke horrenbeste gol sartuko De Pedro barik", dio. Txapeldunen Ligan Realak Manchesterrekin jokatzea gura du, eta hala balitz gertu legoke Manchesterrera partidua ikustera joateko. De Pedrok, Aranburuk eta Arantzabalek partiduetan erabilitako kamisetak ditu. De Pedrorena estimatzen du gehien.







**JUAN CARLOS DÁVILA**
**Arrasate Txuri Urdin-ekoa / Arrasate**

Aurreko denboraldietan ez bezala, asko gozatu du aurten. Datorren denboraldiari begira Realak fitxaketa pare bat egitea gomendatzen du. Realak Manchesterren aurka jokatzea gurako luke, Old Trafford zelaira joan ahal izateko. Realeko jokalarien artetik, *Bonba* nabarmentzen du.

zeramikak URBIETA bainuak
PORCELANOSA
banatzaile ofiziala



BAT BI HIRU LAU BOST SEI ZAZPI REAL
Ibargarai 11 - 13 • BERGARA
laster zuekin!

# ute bakarrik jardungo...



**MIREIA GALLASTEGI ETA SEME JULEN**
**Jurista / Bergara**

Mireia orain dela 13 urte egin zen Realeko zale amorratu, senargaiarekin Atotxara partidu bat ikustera joanda. Hiru urtez bazkide ere izan da, Julen jaio zen arte. Arantzabalen lagunartekoa da, eta Liga oso urduri pasatu duela aitortu du, irratiz eta telebistaz segitu behar izan duelako.



**XABIER GÓMEZ**
**Parrokoa / Eskoriatza**

Realak lehenengo aldiz Liga irabazi zuenekoa eta aurtengo denboraldia azpimarratzen ditu Xabierrek. Bere ustez, Arkonada izan da jokalari onena. Oraingoen artetik, Nihat eta Xabi Alonso. Egunotan, herria Realarekin zegoela adierazteko, parrokiako kanpandorreak Realaren himnoa jo du.



**IÑAKI PEDREJÓN**
**Realzale sutsua / Bergara**

Betidanik da Realekoa, eta oso zalea, gainera. 1982an egin zen bazkide eta partidu asko ikusi ditu ordutik hona. Realak izandako jokalari onenak Zamora, Satrustegi eta Lopez Ufarte direla uste du. Taldeak oso Liga ona egin duela dio, eta oso pozik dago. Domekan ez ei zegoen urduri.




**ENERITZ ETA NEREA**
**Jarraitzaile leialak / Oñati**

20 eta 21 urteko lagun horiek betidanik izan dira Realzale, baina familiako beste inor baino jarraitzaile sutsuago dira. Nerea bazkide da, eta Anoetan ikusi zuen Liga bukaera; Eneritzek, berriz, telebistaz; biek ere nahiko urduritasun pasatuta. Taldeak lortutakoarekin "oso-oso pozik" daude.



**ITXARO ZUBILLAGA**
**Kazetaria / Aretxabaleta**

Betidanik izan da Realzale. Ez da bazkide, baina aurten sarritan joan da Anoetara. Bigarren geratu bada ere, txapeldun ikusten du taldea, eta horretan entrenatzaileak zeresana izan duela uste du. "Mentalitate aldaketa gertatu da, jokalariak ez dira-eta aldatu", dio.

**ANGEL BENGOA ETA FAMILIARTEKOAK**
**Eskoriatza**

Angel Bengoa Zerrajeran hasi zen Realeko zale izaten. Txuri-urdinek eman dizkioten momentu onenak, duda barik, 80-81 eta 81-82 denboraldietan irabazitako Liga biak. 1996an egin zen bazkide, ilobekin batera. Domekero joaten dira Reala ikustera: lehen, Atotxara eta orain, Anoetara. Seme-alabarik ez, eta iloba guztiak bultzatu ditu Realzale izatera. Balkoia banderaz gainezka daukate.






**PATXI AIASTUI ETA XABIER IBARZABAL**
**Izarraitz taberna / Oñati**

Patxik eta Xabierrek, telebistan zein estadioan bertan, arretaz jarraitu dute Liga txapelketa. Patxi Santanderren eta Vigon ere egon zen. Txuri-urdinen Liga amaierari "bikain" bat ematen diote. Txapeldunen Liga hasten denean, bidaia pare bat gutxienez ere egingo dituzte Realarekin.




PLÁSTICOS TÉCNICOS

FLAIBER S.A.
PLASTICOS INYECTADOS BERGARA

• Diseinu edo eredu bidezko pieza berezien fabrikazioa.
• Plastikoen injekzioa.

Aribar Industrialdea 3-A
San Juan Auzoa - BERGARA
Tel.: 943 765 874 / Faxa: 943 767 068



BAT BI
HIRU LAU
BOST SEI
ZAZPI
REAL


Veranoski
EROSKi
Grupo Eroski
Erosten Jakin

■ **DONOSTIA / EKAINAREN 22a**



XABIER URZELAI
Kazetaria

# Txapeldunen afizioa du talde txuri-urdinak

Asteleheneko egunkariei gainbegiratua egin eta gero, ez da erraza Realaren gainean lau berba idaztea. Abantaila hori daukat, badakidala gainerakoek zer idatzi duten, eta guztiek bat egiten dutenean gauza gutxi dago gaineratzeko. *Gara, Deia, El Diario Vasco* eta *Mundo Deportivo*-k zoriondu baino ez dute egin talde txuri-urdina, eta ez da gutxiagorako, Raynald Denoueix-en mutilek luzaroan ez ahazteko moduko denboraldia egin dute-eta. Ez dira Ligako txapeldun –Karpinek argi utzi du hori–, baina domekan Donostiara hurreratu zirenek txapeldun izango balira bezala ospatu zuten.

Gipuzkoako herri askotatik eta beste ehunka lekutatik joandako Realzalez bete zen Donostia domekan. Gure ibarrekoek ere ez zuten kalerik egin, eta goizean goizetik Donostiako kaleak animatzen ibili ziren. Eguerdi partea nahiko lasaia izan zen, eta benetako festa arratsaldeko bostak aldera hasi zen: alde zaharra jendez gainezka; bandera txuri-urdinak nonahi; gura beste garagardo; eta giro ezin hobea. Alde zaharrak Bulebarrari eman zion lekukoa, eta jaiak Anoetan eta udaletxe aurrean segitu zuen; luze, gainera.

Arrazoi du Karpinek, Reala ez da aurtengo txapeldun. Reala bigarren izan da, Txapeldunen Ligan izango da, Gipuzkoa txuri-urdin jantzi da, zaleek futbolaz gozatu egin dute, eta taldeak sekulako zaleak dituela erakutsi du. Horregatik guztiagatik, Zorionak, Reala!



Arratsalde partean, alde zaharreko kaleak Realeko jarraitzailez bete ziren.



Reala eta Athletic bat izan ziren domekan.



Gaztetxoenek ere ederto gozatu zuten egunaz.



Euskal talde guztiak elastiko berean.



Bergararrak ere piloa izan ziren domekan Donostian.

STADLER, S.A.
PIEZA METALIKO SINTERIZATUAK

BAT BI
HIRU LAU
BOST SEI
ZAZPI
REAL

Santxolopetegi Auzoa 26 - 21 P.K.
Tel.: 943 78 07 11 - 943 78 06 98 • Faxa: 943 78 02 58
stadler@stadler.es - 20560 OÑATI

■ KORTABARRIA, IDIGORAS ETA 'GAZTELU': ATZOKO TXAPELDUN DEBAGOIENDARRAK

# Egoera berdintsua bizi izan zu

XABIER URZELAI

**Elastiko txuri-urdina jantzita txapeldun izatea zer den ondo dakite Inaxio Kortabarriak, Xanti Idigorasek eta Agustin Arantzabal *Gaztelu*-k. Realeko jarraitzaile dira orain, eta ederto gozatu dute aurtengo Realarekin.**

Realaren iraganaren zati dira ondoko argazkian azaltzen diren Inaxio Kortabarria, Xanti Idigoras eta Agustin Arantzabal *Gaztelu*. Talde txuri-urdinaren gain-gainean izan dira hiru lagun horiek, eta aurten ederto gozatu dute talde gipuzkoarrak egin duen Liga txapelketarekin. Ondoko argazkia azken jardunaldian atera bagenuen ere, astean barrena egin dugu berba eurekin, domekan gauza asko zeudeneta oraindik argitzeko: Liga txapeldun nor izango zen, besteak beste.

Partidua hasi baino ordu erdi lehenago elkartu ginen Anoetan. Inazio Kortabarriak eta *Gaztelu*-k partidua Anoetan ikusteko asmoa zuten. Xanti Idigorasek, berriz, nahiago zuen partidua etxean ikusi, lasai-lasai. Minutu gutxi barru jokatuko zen partiduaren gainean berba egiten hasi eta guztiek ere argi zuten azken jardunaldian Madrilgo taldeari Ligak etxetik ihes egitea oso zaila izango zela. Baita asmatu ere. Eurek ere egoera berdintsua bizi izan zuten azkenaurreko partiduan Sevillaren kontra galdu zutenean. Azken jardunaldian Atlético de Madrid taldeari irabazi zioten, baina Real Madril izan zen txapeldun. *Gaztelu*-ren esanetan, hori da Realarekin duen oroitzapen txarrena: "Gogorra izan zen, txapelketa osoan partidu bakarra galdu ez, eta azkenaurreko partidua galduta joan zitzaigun Liga Txapelketa". Inaxio Kortabarria eta Xanti Idigoras ere bat datoz *Gaztelu*-rekin: Realean izan ziren urteetan hura izan zen momentu gogorrena. Momentu goxoenaz galdetzerakoan ere bat egiten dute hirurek: "Lehenengo Liga Txapelketa eskuratu genuenean demasa izan zen. Arantzazutik Donostiara autobusez joan ginenean bizi genuena nik ez dut berriz sekula bizi. Baserritarrak segak eskuan zituztela eta negarrez guri agurtzen ikustea... hori ez dut sekula ahaztuko", dio Inaxio Kortabarriak.



XABIER URZELAI
Realeko hiru jokalari ohiak besteok baino lasaiago zeuden domekan; ez zen horrelako egoera bat bizi izaten zuten lehenengo aldia.

"Realarekin izan dudan momentu gogorrena, lehenengo Liga galdu genuenean"
'GAZTELU'

"Arantzazutik Donostiara autobusean egin genuen bidaia demasa izan zen"
INAXIO KORTABARRIA

"Aldaketa asko izan dira taldean, eta aldaketa horiek on egin diote Realari"
XANTI IDIGORAS

#### URTE BATETIK BESTERAKO ALDAKETA

Ezinezkoa dirudi taldea hain epe motzean horrenbeste aldatzea. Xanti Idigorasek argi dauka aurtengo denboraldia gauzak ondo egin diren erakusgarri dela: "Realak aurten izan duen arrakastaren zergatia zein izan den esatea ez da erraza. Aldaketa asko izan dira taldean, eta aldaketa horiek on egin diote Realari. Taldearen zuzendaritza beste bat da, entrenatzailea ere beste bat da, egin diren fitxaketek sekulako maila erakutsi dute, eta lehen zeuden jokalariek punta-puntako mailan jokatu dute. Horrez gain, aurredenboraldian egin zuten lanak emaitza ezin hobeak eman ditu". Inaxio Kortabarriak eta *Gaztelu*-k jokalariek izandako maila azpimarratu dute. Guk jokalari gustukoenaren gainean galdetu diegu, eta zera esan digu Inaxio Kortabarriak: "Nik golak egiten dituzten jokalariak azpimarratzen ditut beti, eta alde

MEKALKI
S. Coop.
Mekanizatuetarako Zerbitzu Osoak

Zubillaga industrialdea 13
Tel.:943 78 19 11
Faxa: 943 78 29 90
e-mail: mekalki@administracion.es
http://www.mekalki.es

BAT BI HIRU LAU BOST SEI ZAZPI
REAL

BETI ZUEKIN,
ZORIONAK!

# uten Realeko jokalari ohiekin





EL DIARIO VASCO



EL DIARIO VASCO

**‘GAZTELU’: INDARRA ETA KEMENA**

**Bergararra (1946-08-23). Realak bere lehenbiziko liga irabazi zuenean, 80-81 denboraldian, erretiratu zen, 34 urte zituela. 1967an egin zuen debuta Realarekin, Algecirasen, Andoni Elizondoren aginduetara. Erdilaria izan arren, aurrean eta atzean ere jokatzen zuen; komodin horietakoa zen. Garra handikoa, baina teknikaduna ere bai. Argazkian, bere seme Agustinekin, Atotxan, omenaldia egin zioten egunean.**

**IDIGORAS: ABIADA ETA LEHIAKORTASUNA**

**Oñatiarra (1953-07-24). Celtaren aurka, 1974ko irailaren 15ean, egin zuen debuta Realarekin eta “Gaztelu”k bezala, txuri-urdinek lehen Liga irabazi zutenean —Xixonen, azken partiduan, hasierako hamaikakoan atera zen— utzi zuen taldea, Mexikoko Pueblara joateko. Pirri eta Asensirekin jokatu zuen han. Aurrelaria, eskuineko hegalean jokatzen zuen; jokalari azkarra eta gogorra zen. Espainiarekin behin jokatu zuen.**

**KORTABARRIA: KALITATEA ETA DOTOREZIA**

**Arrasatearra (1950-07-31). Coruñako Deportivoren aurkako partiduan egin zuen debuta Realarekin, 1971ko irailaren 19an, Segurolaren aginduetara. Urteetan, Realeko kapitain handia izandakoa, nortasun handiko jokalaria zen; kalitate eta klase handikoa, atzealdean agintzen zuena. 1985ean erretiratu zen, Realarekin bi Liga Txapelketa irabazita. Europako Kopan finalerdietara iritsi zen txuri-urdinekin.**

horretatik Nihat izan da erabakigarriena, ezusteko handiena. Horrez gain, Kovacevicen lana ere azpimarratu egin behar da”. Xanti Idigorasen iritziz, horiek jokalari garrantzitsuak izan dira, baina beste bi jokalari azpimarratu gura izan ditu: “Aitor López Rekartek eta Igor Jauregik sekulako denboraldia egin dute; nire iritziz, horiek izan dira onenak”.

Realeko jokalariak alde batera utzita Ligako jokalari bat aukeratzeko eskatu diogu *Gaztelu*-ri: “Nire iritziz, beti izan da garrantzitsua defendatzen diren koloreak maitatzea, eta alde horretatik Real Madrileko Raul modukorik ez dago. Sekulako jokalaria izateaz gain, bere taldea maite du, eta hori oso garrantzitsua da. Horrez gain, Bartzelonako Luis Enrique ere asko gustatzen zait, batez ere daukan indarragatik eta izaeragatik”. Inaxio Kortabarriak eta Xanti Idigorasek ere bi jokalari horiek azpimarratu dituzte, Raul batez ere: “Taldeak gehien behar duenean azaltzen da Raul, eta golak egiteko sekulako gaitasuna dauka”.

Euren garaiko futbolaren eta egungo futbolaren gainean ere egin dugu berba: “Guztiz ezberdinak”, euren esanetan, eta *Gaztelu*-k argi dauka zergatik: “Gure garaian beste kontu bat zen, taldea maite genuen eta dirua ez zen lehentasuna, ez zegoen-eta diru askorik”. Xanti Idigoras ere iritzi berekoa da: “Egun, futbol taldeek enpresa izaera dute, eta alde horretatik, errentagarritasuna bilatzen dute”.

**DATORREN URTEA, GOGORRA**

Datorren urtea aurtengoa baino gogorragoa izango da, taldea hiru txapelketatan izango delako. “Realak Liga Txapelketari eman beharko lioke lehentasuna, eta Txapeldunen Ligan zerbait lortzen badute, guztiondako hobeto. Aurtengo aurredenboraldiak inoiz baino garrantzi handiagoa izango du, eta taldeak fitxaketa berriekin asmatzea oso garrantzitsua izango da. Horrez gain, datorren denboraldian ordezko jokalarien lana oso garrantzitsua izango da, jokatzera irteten direnean beste jokalarien maila bera edo hobea erakutsi beharko dutelako”.

Inaxio Kortabarriak eta *Gaztelu*-k gauza bat daukate argi: datorren urteari begira Realak egin behar duen lehenengo gauza taldeari bere horretan eustea da. Hala bedi.

**“Golak egiten dituztenak azpimarratzen ditut nik, eta Nihat izan da onena”**

INAXIO KORTABARRIA

**“Taldea maite duten jokalariak gustatzen zaizkit niri, eta Raul horietakoa da”**

‘GAZTELU’

**“Datorren denboraldian ordezkoak erabakigarriak izango dira”**

XANTI IDIGORAS



**MANUEL ARRUABARRENA** / DEBAGOIENEKO REALEKO BAZKIDE BETERANOETAKOA

# "Gauza handia izango da Txapeldunen Liga jokatzea"

EDU MENDIBIL

**Manuel Arruabarrena (69 urte) Debagoieneko Realeko bazkide beteranoetakoa dugu. 16 urte zituela hasi zen Atotxara joaten, eta 1967az gero Realeko bazkide da. Azken urteotan nahiko sufritu eta gero, aurten Realarekin asko gozatu duela esan digu.**



E.M.

Manuel Arruabarrena bergararra Realzale amorratua da gaztetatik, eta 35 urte daramatza bazkide.

Gizon lasaia kalean eta nerbio hutsa Reala ikusten duen bakoitzean. Noizbait joan izan naiz harekin Reala ikustera, eta kolore txuri-urdinak barru-barruan daramatzan horietakoa da Manolo. 1949an hasi zen Atotxara joaten Reala ikustera, eta 1967az gero bazkide da (1.015 txartel zenbakia dauka). Realaren makina bat gol kantatu ditu eta biziki gogoan dauka Zamorak Xixonen sartutakoa, 1981n Realari lehen liga eman ziona: "Lau lagun joan ginen Xixonera. Bazirudien berriro ere ligak ihes egingo ziola Realari, eta zelaitik irteteko gertu geundenean, Zamorak gola sartu, eta zoramena izan zen hura".

Hasieran Andres Altzelairekin joaten zen Atotxara eta 70eko hamarkadaren amaiera ezkero Jesus Urkiola lagunarekin joaten da Reala ikustera. Atotxan sortzen zen giroa gogoan dauka: "Anoeta erosoagoa da, baina ez dauka Atotxak zeukan xarma hura. Zelai berezia zen". Jokalari faboritoa aukeratzeko orduan ez du bitan pentsatu: "Arkonada izan da nire idoloa. Atezain paregabea izan zen, onena, eta zelaian eta zelaitik kanpo ere benetako liderra. Bi aldiz txapeldun izan zen talde hartan oso jokalari onak zeuden, eta *Gaztelu* bera ere asko gustatzen zitzaidan, sekulako lana egiten zuen". Realak izan dituen entrenatzaileetatik, Iriondo eta Toshack nabarmentzen ditu: "Toshackek lehen etapan lan bikaina egin zuen eta aitortu beharra zaio fitxaketekin gehienetan asmatu egiten zuela. Hala ere, bere azken etapan nahiko erreta zegoela uste dut. Denoueix gustuko dut, zarata atera barik langilea delako". Reala jokalari atzerritarrak ekartzen hasi zenean polemika piztu zen: "Bigarren mailara jaitsi baino lehen, nahiago dut atzerritarrak ekartzea". Pena du aurten Liga irabazteko aukera paregabea galdu delako: "Villarrealen kontrako partidua erabakigarria izan zen, 2-0ekoarekin luzapenean partidu hura berdintzea kolpe handia izan zen".

**"Ikusi ditudan jokalarietatik, nire faboritoa Arkonada izan da. Zelaian eta zelaitik kanpo ere benetako liderra zen"**

**"Villarrealen kontrako partidu hura ez irabaztea erabakigarria izan da liga ez irabazteko"**

#### KOPAKO BI FINALAK ETA EUROPA

Bergara KEko bazkide da azken 40 urteotan. Hala ere, azkenaldian ez da Agorrosinera joaten; Realarekin nahikoa duela dio: "Anoetara bakarrik joaten naiz, eta telebistatik kosta egiten zait Reala ikustea, asko sufritzen dut-eta. Donostiatik kanpora gutxitan joan izan naiz. 1987an eta 1988an Realak jokatu zituen Kopako finaletan egon nintzen. Zaragozan kopa lortzea ederra izan zen, eta hurrengo urtean, berriz, disgustu handia hartu genuen Bartzelonaren kontrako finala Madrilen galtzean. Partidu hura irabaztekoa zen, baina Realeko hainbat jokalari Bartzelonara joateko ziren, eta ez dakit...".

Realak Txapeldunen Ligan jokatuko du lehen aldiz, eta ilusionatuta dago: "Ez dakit Realaren moduko talde batendako gehitxo izango ote den Europan, Ligan eta Kopan jokatzea. Hala ere, Europako talde onenak ikusteko aukera izango dugu, eta ea disfrutatzerik badaukagun...".



ALURA, S.L.

- Mekanizaziorako altzairua.
- Altzairu, Torloju, Estampaziorako altzairu eta Soldadura Herdoilgaitza.
- Alumninio.

San Lorentzo Industrialdea
Haitz Iturri 6
Tel.: 943 76 02 50 / Faxa: 943 76 03 15

Sitalu 2001 S.L.

Aluminiozko profileria eta osagarriak

San Lorentzo Industrialdea
Haitz Iturri 1
Tel.: 943 76 12 36 / Faxa: 943 76 16 44

Grupo iDR S. L.

Produktu industrialen ikerketa eta garapena

San Lorentzo Industrialdea
Haitz Iturri 4
Tel.: 943 76 11 25 / Faxa: 943 76 53 91

BAT BI
HIRU LAU
BOST SEI
ZAZPI
REAL

CONSORT 2000 S.L.

Mahastizaintzarako osagarriak

San Lorentzo Industrialdea
Haitz Iturri 1
Tel.: 943 76 12 36 / Faxa: 943 76 16 44

Servimasa

Egurraren zerbitzu osagarriak

San Lorentzo Industrialdea
Haitz Iturri 4
Tel.: 943 76 19 95 / 943 76 07 49

SIDERMES, S. L.

Metalurgiarako ekipo eta aparatu bereziak

San Lorentzo Industrialdea
Haitz Iturri 4
Tel.: 943 76 11 25 / Faxa: 943 76 53 91


Prezio bereziak sukalde eta bainugeletan
erakusketa aldaketagatik
BAT BI
HIRU LAU
BOST SEI
ZAZPI
REAL
FAGOR
Sukaldeko altzariak
AENOR
Produktu zertifikatua
6
URTEKO GARANTIA
JAKINA
Zeramika
Bainuak
Sukaldeak
Bergarako FAGOR banatzaile bakarra
San Lorentzo Industrialdea
Amillaga 10 behea
BERGARA
Tel.: 943 76 03 30
Faxa: 943 76 02 91

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko ekainaren 27a

Kultura eta aisialdia

Ekainaren 27tik uztailaren 4ra










# Kultur Errota

## Debagoienean ere euskarazko kultura emanaldiak izango ditugu irailetik urte bukaerara

Debagoieneko herri gehienetan –Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan, Elgetan eta Eskoriatzan, hain zuzen– izango dugu, udatik urte bukaerara bitartean, Kultur Errota egitasmoaren barne eskaintzen diren emanaldiez gozatzeko aukera. Izan ere, Topaguneak (Euskara Elkarteen Federazioa) abian jarri berri du aurtengo Kultur Errota egitasmoaren bigarren aroa, eta itxi berria da euskara elkarteek emanaldiak euren herrira eramateko eskakizunak egiteko epea. Arrasateko AEDk, Bergarako Jardunek, Aretxabaletako Loramendik eta Eskoriatzako Axtrokik eskaerak egin dituzte, kasu guztietan saio bat baino gehiago herrira ekartzeko helburuarekin. Itxaron egin behar, orain, Topaguneak elkarteek egindako eskaerei erantzuna eman arte, baina ziurra da ibarrean berriro izango dugula euskarazko eta formatu txikiko musika, antzerki, bertso, kabaret… emanaldiez gozatzeko aukera, udazkenetik urtea bukatu bitartean. /L.K.

GOIO ARANA

EMANALDIAK/ **KULTUR ERROTAK HAINBAT EMANALDI EKARRIKO DITU IBARRERA**

# Formatu txikiko saioak ibarrean

EUSKARAZ EGINDAKO MUSIKA, ANTZERKI… EMANALDIAK EGONGO DIRA GUREAN DATOZEN HILEOTAN, TOPAGUNEAREN ESKUTIK

LEIRE KORTABARRIA

**Abian jarri berri den 2003ko Kultur Errotaren bigarren aroko ekitaldi batzuk Debagoienera ekartzeko eskakizuna egin dute ibarreko hainbat kultura elkartek. Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Elgeta eta Aretxabaletako elkarteek guztira 13 saiorako eskakizunak egin dituzte.**

Topaguneak (Euskara Elkarteen Federazioa) oraintsu aurkeztu du Kultur Errota egitasmoaren 2003ko bigarren aroa, irailetik urte bukaerara bitartekoa. Eta 63 ikuskizun prestatu dituzte. Bada, gaur, hilak 27, bukatu da euskara elkarteek euren eskaerak Topaguneari helarazteko epea, eta Debagoieneko lau elkartek 13 saio eskatu dituzte; Elgetakoak Espaloi antzokia inauguratzerakoan berretsiko ditu eskaerok.

AEDk bi antzerki saiorendako eskaera egin du, urrirako eta azarorako; Bergarako Jardunek antzerki saio bat, jazz kontzertu bat eta diaporama saio bat aukeratu ditu, urrian, azaroan eta abenduan; Aretxabaletako Loramendik musika, foto-poesia eta diapositiba emanaldiak eskatu ditu; eta Eskoriatzako Axtrokik kontzertu bat, bertso afari bat eta ipuin kontaketa saioa eskatu ditu, irailean, urrian eta azaroan, hain zuzen ere.




TOPAGUNEA

**Hilaren 18an aurkeztu zuen Topaguneak Kultur Errotaren aro berria, Donostian.**

### JARDUERA KLASIKOAK ETA BERRIAK

Topaguneak bere hasierako helburuei eusten die Kultur Errotaren aro berri honetan: hain zuzen, "kultura ibilbideak eskaintzea eta euskarazko ekoizpen kulturala sustatzea". Euskal Herri osoko artistak hartzen dute parte, herririk herri euren saioak eskaintzen. Ohiko jarduerekin batera (trikitixa, kantua…), kultura adierazpen mota berriek ere badute tokia Kultur Errotan.

## Berritasuna nahiago

**Kultur Errotako emanaldiek badute ibilbide luzea gurean; izan ere, 1998an jarri zen abian egitasmo hori. Debagoieneko euskara elkarteren batek edo bestek urtero antolatu izan du, Topagunearen eskutik, Kultur Errotan eskainitako emanaldiren bat. Aurten, Topaguneak bi zatitan banatu du Kultur Errotaren jardunaldia. Lehenengoan –urtarriletik ekainera bitartean– hamahiru emanaldi izan ditugu Debagoienean, AED, Jardun, Loramendi, Axtroki eta Laixan elkarteen eskutik.**

**Ibarreko elkarteek aukeratu dituzten emanaldi motak originaltasun apur bat gehitzen zutenak izan dira: adibidez, kontzertu didaktikoak, tabernetarako pentsatutako antzerki saio eta umorezko emanaldiak, ipuin kontaketak, kabaret saioak… Eskaintza klasikoagoekin uztartuta joan dira saio horiek, hala nola: blues eta jazz kontzertuekin.**

**Udako denboraldia bukatzeko, beste emanaldi bat ekarriko digu oraindik Kultur Errotak: uztailaren 18an, hain zuzen, Arima Beltza taldearen kontzertua egongo da Arrasaten.**

## Askotariko erantzuna

**Euskara elkarteek gaur, ekainak 27, zuten mugaeguna euren eskaerak Topaguneari bidaltzeko. Orain, federazioak eskaera eta eskaintza uztartu behar ditu. Eskaera eskaintza baino altuagoa bada –63 emanaldi eskaintzen dira–, mailakako sistema erabiliko du Topaguneak: hau da, lehenik, elkarte guztiei onartuko zaie emanaldi bana; gero, bi, hiru… 63ra iritsi arte. Hortaz, Debagoieneko elkarteek ere, gutxienez, emanaldi bat lortuko dute.**

**Hegoaldeko 5.000 ikuslerengana iristea espero du Topaguneak urtearen bigarren erdi honetan. Debagoieneko harrera datuei begiratzen badiegu, elkarteok askotariko balorazioak egin dituzte. AED elkarteak honako balorazioa egiten du: "Sarritan, lekuaren eta egunaren araberakoa izaten da erantzuna; adibidez, ez da gauza bera Amaia antzokian edo taberna baten antolatzea emanaldi bat. Antzokian hotzagoa da, eta tabernan beti jende gehiago elkartzen da, hurbiltasun handiagoa dago… Eta horrek lagundu egiten du jende kopuru polita batzera".**



RENAULT Kontzesionarioa
AUTOBERRI
ARRASATE
AZPEITIA
BERGARA
ELGOIBAR
IRUN
TOLOSA

KRONIKA/ ARRASATEKO JAIAK

# Onena, herritarren jarrera

JENDE ASKO OPORRETAN JOAN ZEN, BAINA GELDITU ZIRENEK EDERTO EUTSI ZIOTEN SAN JUANETAKO GIROARI

GOIENKARIA

**Euria, txingorra eta arrautza zaparrada izan ziren, besteak beste, Arrasateko jaietan. Herritar askok oporretarako bidea hartu zuten, ginera. Ezusteak ezuste, giro polita eta zapore ona utzi dute San Juanok.**

Inoiz baino arrasatear gehiagok erabaki dute aurten San Juanak beste inon ospatzea herrian baino. Horretarako egutegi apropos a izan dute aurten, izan ere, enpresa eta lantegi askok jai hartu zuten joan den asteburutik oraingora bitartean. Horrenbestez, San Juanotako giroak sumatu du, bai, exodo horren eragina.

Balantzaren beste aldean, ordea, ipini behar da geratu diren mondragoetarren parte hartze gogotsua. Horiei esker, Arrasateko aurtengo jaiak arrakastatsu izan dira. Udal egitarauaz gain, herriko hainbat taldek euren ekintzak ere antolatu dituzte, eta guztien artean, jaietan giro ederra gailentzea lortu dute. Proposamen berrien artean, azpimarratzekoa da Arraska taldearen 'skate' jaialdia, jende ugari bildu zuena.

da.



**Errementari Dantza.** **Hamar urte bete dira Arrasateko musika eta dantza esparruetako hainbat lagunek Errementari Dantza abian jarri zutela. Hori ospatzeko, herriko dantza talde guztiek emanaldia egin zuten danborrada aurretik. Herriko Plazan nekez kabitu ziren.**



**Helduen danborrada.** **Euriak bere agerpen indartsuena egin zuen gutxien behar zen momentuan: helduen danborrada Herriko Plazan batzen ari zenean, hain zuzen. Txingorra ere bota zuen une baten. Hala ere, danborrariek bikain eutsi zioten euren eginbeharrari. Aupa!**

#### ASTELEHENA, EGUN ONENA

"Egun onena astelehena izan zen, San Juan bezpera, bai egunez, bai eta gaueko giroari dagokionez", diote hainbat mondragoetar jaizalek. Horixe izan zen, besteak beste, koadrilen eta jaiei nortasuna ematen dieten hainbat ekintza jakinen eguna. Gazte koadrilen lana txalotzekoa izan da, eta astelehenean sumatu zen gehien haien parte hartzea: besteak beste, makala jaso zuten, Herriko Plazan, eta arrasatearrek diote "inoizko jasoetarik azkarrena" egin zutela. Oso ondo, mutilak!

Aipatu beharra dago salbearen udal desfilea egin zutenean, Inazio Lakuntza alkateari eta hainbat zinegotziri arrautzak bota zizkietela han elkartutakoek. Eguneko beste gertakizunen artean, gau parteko ekaitza ere nabarmentzekoa Zorionez, jai giroa ez zen zapuztuta geratu.

#### MUSIKA, ARRAKASTATSUEN

Musika emanaldi guztiak izan dira oso arrakastatsuak: Benito Lertxundiren kontzertua; Juke Box, Boogie Punkers, Señor No eta Sex Museum taldeen emanaldia; AEDk antolatutako bertso-triki poteoa; Arrasate Musikaleko bandaren emanaldia; mariatxiaren kontzertua... Herriko tabernariek ere, iaz bezala, formatu txikiko kontzertuak antolatu dituzte, oso harrera onarekin.

Formatu txikikoa izan ez zena, beti bezala, dragoi jan tradizionala izan zen, 430 bat lagun bildu baitzituen. Lehenengo aldiz urte askoan, ez ziren txartel guztiak saldu; hala ere, eguraldi eskasa egin zuela kontuan hartuta, parte hartze bikaina izan zen.

### Parte-hartzea

Mondragoetar askok –inoiz baino gehiagok– alde egin zuten San Juanak aprobetxatuta, baina gelditu ziren herritarrek gogoz esku hartu zuten ekintza gehienetan. Euren animuari esker, jaiak arrakastatsu izan dira. Musika saioak eta proposamen berriak izan dira arrakastatsuenak.

### Monterrongo emanaldiak

Estilo guztietako kontzertuak egon ziren Monterron parkean, eta guzti-guztiek batu zuten jende kopuru polita: Emperadores mariachiak, Benito Lertxundi kantautorea, rock talde ezagunak –Señor No, Sex Museum...– eta Arrasate Musikaleko Banda pasatu ziren bertatik.

### Eguraldia

Guztiz kale egin zuenik ezin esan; baina eguraldi hobea espero zen jaiotarako. Helduen danborradan sekulako jarioa izan zen, eta Benito Lertxundiren emanaldia ere bertan behera utziko zuela zirudien. Azkenean, eguraldi ona ere izan da, tarteka.

### Alkateari arrautzak bota

Bergarako jaietan gertatu zen bezala, Arrasaten ere arrautzak bota zizkioten alkateari jaietan. Kasu honetan, salbearen udal desfilean parte hartu zuenean bota zizkieten arrautzak Inazio Lakuntzari eta hainbat zinegotziri han bildutako batzuek. Alkatea blai eginda iritsi zen parrokiara.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Eka. 27–Uzt. 4

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## JAIAK

### ANTZUOLA

► **Kalebarrengo jaiak** ospatuko dituzte gaur hasi eta asteburu osoan. Beste ekintza batzuen artean, ginkana, musika emanaldiak, auzo afaria (bihar, zapatua, 21:00etan), meza, herri kirol erakustaldiak… egongo dira.

### ARAMAIO

► **Arraga auzoko jaiak** hasiko dira ospatzen datorren zapatuan, uztailak 5.

### OÑATI

► **Zubillaga auzoko jaiak** ospatuko dituzte gaur hasi eta asteburu osoan. Jolasak, txokolate jana, mus txapelketa, bertso saioa… izango dira, besteak beste.

## DEIAK

### ARRASATE

► **Itoitzeko urtegiaren aurkako** agerraldia egongo da bihar, Iruñean, 12:00etan, eta Arrasatetik talde bat joango da. Bat egin nahi duten debagoiendarrei deia egiten diete eurekin joateko -baita inork autorik ez badu eta eurekin joan gura badu ere. Arbolapetatik irtengo dira, 10:00etan.

### BERGARA

► **Alcer giltzurrun emaileen elkarteak** mahai informatiboa ipiniko du bihar, zapatua, Irala kalean (Peñalba ondoan), 11:30etik 14:00etara.

► **San Martzialgo** erromeriako mahaiak errentan hartzeko epea zabalik dago. Horretarako, jo kultura etxera, ekainaren 30era bitartean, 18:00etatik 21:00etara. 19,50 euro.

### DEBAGOIENA

► **Uztailetik irailerako turismo egitarau berezia** antolatu du Mankomunitateak. Bergaran, gune historikoaren bisita gidatuak egongo dira, asteko egun guztietan; argibideetarako, deitu 943 77 91 28 telefonora. Gatzagan ere bisita gidatuak antola daitezke; interesa izanez gero, deitu 943 71 47 92 zenbakira. Oñatin, natura ibilbide gidatuak egiteko aukera egongo da; bihar, zapatua, Orkatzategiko hegazti kolonia bisitatuko dute; etzi, domeka, mitologia eta historiaurrearen inguruko ibilbidea egongo da. Argibideetarako, deitu 943 78 34 53 zenbakira. Horrez gain, Oñatiko hirigunean ere bisita gidatuak egingo dituzte; informazio gehiagorako, deitu 943 78 34 53 telefonora.

### ESKORIATZA

► ***Eskoriatzako udaletxeen historia*** liburua aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean.

► **Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko** kalejira egongo da martitzenean, uztailak 1, 23:00etan. Txarangak alaituko du ekitaldia.

### OÑATI

► **Laixan-Berria eguna** antolatu du Laixan elkarteak biharko, zapatua. Egun osoan, jolasak, bazkaria, lehiaketak… izango dira, Unibertsitate inguruan. Bazkarirako txartelak salgai daude Guria, Aker eta Boga tabernetan, eta Laixanen. Bestalde, Murgia auzora ibilaldia ere egingo dute.

► **Udaleku irekietan** esku hartu behar duten umeek honako lekuetara joan behar dute, datorren martitzenean: 4, 5 eta 6 urtekoek Bidebarrieta 18-20ra (lehengo kultura etxera); eta 7. 8 eta 9 urtekoek, berdura plazara. Guraso edo zaintzaileak 13:00etan joan beharko dira haien bila.

► ***Berria*** **egunkariaren finantzaketan** laguntzeko asmoz, *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko herri batzordeak akzio salmenta-mahaia zabalik izango du gaur, egubakoitza. Kultura etxean egongo da, 19:30etik 20:30era.

► **Santa Marina auzokoek** afari-merienda egingo dute gaur, egubakoitza, Santa Marina plazan, 19:00etan.

## ANTZERKIA

### ESKORIATZA

► ***Ondo esan beharko*** antzezlana egingo dute Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:30ean.

► ***Elvis, joan hadi!*** kale antzerkia egongo da etzi, domeka, 19:30ean.

► ***Iturrian zer dago?*** dantza, trikitixa eta bertsoak uztartzen dituen ikuskizuna egongo da etzi, domeka, Gorosarri plazan, 23:00etan.

► **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoen ikuskizuna egongo da astelehenean, ekainak 30, Gorosarri plazan, 12:30ean. Eguraldi txarra bada, frontoian egingo dute.

► ***Kutsidazu bidea, Ixabel*** antzezlana egingo du Gorringo taldeak astelehenean, ekainak 30, Gorosarri plazan, 23:00etan.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Bi ikastaro berri** antolatu dituzte KZGuneak eta Ibai-Arte elkarteak, eta biak merkatariei eta ostalaritza sektoreko langilei daude zuzenduta. Bata izango da arriskuko elikagaiak erabiltzeko txartela ateratzeko ikastaroa, janari denda dutenei zuzendua. Egun bateko ikastaroa izango da, uztailean, 13:30etik 16:30era. Bestea izango da arrisku handiko elikagaiak erabiltzeko txartelarena, hura ostalaritza sektorekoei zuzendua. Izena emateko, deitu 943 79 30 90 telefonora (Jorge edo Eider).

### DEBAGOIENA

► **Bi ikastaro antolatu ditu Gurutze Gorriak:** lehen sorospenen gainekoa, bata, eta geriatriaren ingurukoa, bestea. Uztailaren 1etik 21era izango dira biak, astelehenetik egubakoitzera, 19:00etatik 21:00etara, Al-Andalus elkartearen egoitzan, Zigorrolan. Argibideetarako edo matrikula egiteko, deitu 943 76 55 76 telefono zenbakira.

### EUSKAL HERRIA

► **Kamera aurreko antzezpen ikastaroa** antolatu du Pausokak, ekainaren 30etik uztailaren 11ra arte, astelehenetik egubakoitzera bitartean. 40 orduko ikastaroa izango da, antzezpena ikasi gura duen edonorendako. Niko Lizeaga aktoreak gidatuko du ikastaroa. 10etik 15 ikasle bitartean hartuko dituzte, eta matrikula 240 euro kostatuko da. Argibideetarako, deitu 943 29 71 11 telefono zenbakira.

### GIPUZKOA

► **Mendikoi nekazaritza garapenerako institutuak** hainbat ikastaro antolatu ditu, nekazaritzan formazioa gura dutenendako. Argibideetarako, deitu honako zenbakiotara, ekainaren 30etik aurrera: 945 28 53 87 (Arkauteko zentroa), 94 454 14 21 (Derioko zentroa), edo 943 59 21 66 (Fraisoroko zentroa).

## MUSIKA

### BERGARA

► **Bergarako Orkestra Sinfonikoak** emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, uztailak 4, San Pedro parrokian, 20:00etan.

► **Myöhä** talde finlandiarrak jazz kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, hilak 4, Espoloian, 22:30ean.

### ELGETA

► **Kokein** taldearen emanaldia egongo da datorren egubakoitzean, uztailak 4, gaztetxean, 23:00etan.

### ELORRIO

► **Bidinte** musikari ginearraren emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, San Josen, 22:30ean, Musikaire jaialdiaren barne.

► **Tangata** laukotearen kontzertua egongo da bihar, zapatua, Argiñetan, 22:30ean, Musikaire jaialdiko ekitaldien barne.

► **Haizea** taldeak -Aitor Olea durangarrak eta Josu Ayarzaguena berriztarrak osatuta- musika klasiko emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, uztailak 4, elizan, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► **Ken-7 eta EH Sukarra** taldeen rock kontzertua egongo da bihar, zapatua, txosna gunean, 01:30ean.



► JAIAK

### SAN PEDRO JAIAK, ESKORIATZAN, UZTAILAREN 1ERA ARTE

Eskoriatzako jai handiak, San Pedroak, ospatuko dituzte, gaurtik hasi, egubakoitza, uztailaren 1era arte, martitzena. Egun guztietan egongo da zer egin eta zerekin dibertitu, baina bihar, zapatua, izango da egun handienetariko bat. Hainbat kirol ekintza egongo dira, batez ere, goizean. 22:30ean, nagusien danborrada ibiliko da herriko kaleetan, eta gauean, dantzaldia eta txosna guneko rock kontzertuak egongo dira. Etzi, domeka, meza nagusia, Bandaren kontzertua, eta, arratsaldean, ikuskizunak egongo dira: hauei dagokienez, Potxin eta Patxin pailazoak, kale antzerkia eta dantza eta bertso ikuskizuna egongo dira. Takolo, Pirritx eta Porrotx etorriko dira astelehenean. Martitzenean, euskal jaia ospatuko dute.

**Non:** Eskoriatzan. **Noiz:** Gaurtik, egubakoitza, ekainak 27, martitzenera bitartean, uztailak 1.

LAN ESKAINTZA

Haurtzaindegietarako eta zentro publikoetarako deialdiak laster

**HAURTZAINDEGIKO LANGILEAK**

**Haurtzaindegian LH–2 eskatzen da**

**Informa zaitez!**

**943 444 509**



### AITA MADINAREN LANEN CD-A AURKEZTUKO DA

Aita Madina musika idazle oñatiarrak harparako konposatutako hainbat pieza jasotzen dituen CDa aurkeztuko dute etzi, domeka. Cristina Sánchez Cuétara harpa jotzaile bilbotarrak jokatutako piezak dira, eta kontzertua egingo du, aurkezpen moduan. Oñatiko Agustinoen elizan izango da, etzi, 19:30ean.

► ***Iturrian zer dago?*** bertso emanaldia egingo dute Anjel Mari Peñagarikanok eta Andoni Egañak etzi, domeka, Gorosarri plazan, 23:00etan.
► **Tapia eta Leturiaren** emanaldia egongo da martitzenean, uztailak 1, herriko plazan, 22:00etan.

## ERAKUSKETAK

### BERGARA

► **Beart-eko ikasleen** margolan erakusketa egongo da zabalik kultura etxean, datorren egubakoitzetik aurrera, honako egun eta orduetan: astegunetan, 18:00-21:00; eta zapatu eta jai egunetan, 12:00-14:00.

### ESKORIATZA

► **Zubiateko labearen** gaineko erakusketa egongo da martitzenean, uztailak 1, plazan, 12:00etan, San Pedroetako euskal jaiaren barne.

### OÑATI

► **Aitor Urdangarin V. Nazioarteko Pintura Lehiaketako** lanen erakusketa ibiltaria ikusteko aukera dago, kultura etxean, Santa Marina plazan, 18:30etik 20:30era, astegunetan, eta 12:00etatik 14:00etara, zapatuetan eta domeketan.

## LEHIAKETAK

### ARETXABALETA

► **Koadrilen arteko lehiaketa** deitu du Debagune elkarteak, eta izena eman gura duten Aretxabaletako koadrila guztiek Loramendiren egoitzara joan beharko dute ahalik eta lasterren. Herri kirolak eta euskara probak gainditu beharko dituzte. Kanporaketak bihar eta uztailaren 5ean izango dira, zapatua, eta finala, uztailaren 12an, Oñatin. Saria da Eako landa turismo batean asteburu bat.

### EUSKAL HERRIA

► **XXI. Tene Mujika narrazio labur lehiaketa** deitu dute Debako udalak eta Elkarlanean argitaletxeak. Guztira, 3.150 euro banatuko dituzte saritan. Gai libreko eta argitaratu gabeko narrazio laburren hiru ale bidali beharko dituzue Debako udaletxera, azaroaren 28a baino lehen.

### OÑATI

► **Oñatiko jaietako egitarauko azala** aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Parte hartzeko, oñatiarra izan edo Oñatin bizi beharra dago. Teknika librea izango da, baina ezinbestekoa izango da honako testua agertzea: Oñatiko jaixak 2003. Lanak aurkezteko mugaeguna uztailaren 18a izango da, turismo bulegoan edo kultura etxean. 250 euroko lehen sari bat eta 125 euroko bigarren bat banatuko dituzte

# Zinema

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEMA**

***El monje***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Como Dios***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***Ejecutivo agresivo***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Matrix reloaded***
Egunero: 18:00, 21:00.

***El monje***
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

***Como Dios***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Slam***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Ejecutivo agresivo***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***La peligrosa vida de los Altar Boys***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***En un lugar de África***
Egunero: 18:00, 21:00.

***La gran película de Piglet***
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Superagente Cody Banks***
Egunero: 17:15, 20:00.

***Ken park***
Egubakoitza eta zapatua: 22:45.
Domeka: 22:30.

***El compromiso***
Egubakoitza eta zapatua: 22:45.
Domeka: 22:30.

***Matrix reloaded***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

***El monje***
Egunero: 17:15, 20:00.

***En un lugar de África***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

***A todo gas 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Cómo perder a un chico en diez días***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***La balsa de piedra***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Como Dios***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Presos del olvido***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Caos***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Shin Chan***
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

***Invencible***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 22:30.

***Escena de un crimen***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Mi Napoleón***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***La herencia***
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:30.

***La vida de David Gale***
Egubakoitzetik domekara: 20:00.

***Atraco a las tres y media***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Marco Antonio, Hong-Kong-eko bahiketa***
Zapatua eta domeka: 12:30.

■ **STER ZINEMAK**

***A todo gas 2***
Egubakoitza: 18:25, 20:35, 22:40, 00:45.
Zapatua: 16:15, 18:25, 20:35, 22:40, 00:45.
Domeka: 16:15, 18:25, 20:35, 22:40.

***Como Dios***
Egubakoitza: 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Zapatua: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Domeka: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40.

***Nacer para morir***
Egubakoitza: 18:15, 20:25, 22:35, 01:00.
Zapatua: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 01:00.
Domeka: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35.

***Matrix reloaded***
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:15, 01:00.
Domeka: 19:30, 22:15.

***Willard***
Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:20, 00:30.
Domeka: 20:10, 22:20.

***Atraco a las tres y media***
Egubakoitza: 18:05.
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:05.

***Vampiros: los muertos***
Egubakoitza: 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Superagente Cody Banks***
Egubakoitza: 18:05.
Zapatua eta domeka: 15:55, 18:05.

***Cómo perder a un chico en diez días***
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 20:35, 00:55.
Domeka: 20:15, 20:35.

***Zu warriors***
Egubakoitza: 18:30, 20:25, 22:25, 00:20.
Zapatua: 16:35, 18:30, 20:25, 22:25, 00:20.
Domeka: 16:35, 18:30, 20:25, 22:25.

***La peligrosa vida de los Altar Boys***
Egubakoitza: 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Zapatua: 15:55, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Domeka: 15:55, 18:10, 20:20, 22:30.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

***Matrix reloaded***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

***Relaciones confidenciales***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***A todo gas 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40.

***El monje***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Como Dios***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Shin Chan***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:30, 20:30.

***Willard***
Egubakoitza eta zapatua: 22:20, 00:20.
Domeka: 22:20.

***Slam***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

***Ejecutivo agresivo***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:55, 20:15, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 17:55, 20:15, 22:30.

***La gran película de Piglet***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05.

***Soy espía***
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 20:15, 22:15.

***Driven***
Egubakoitza eta zapatua: 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.
Domeka: 12:15, 17:45, 20:05, 22:30.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20.
Domeka: 12:15, 16:20.

***La cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35.

***Superagente Cody Banks***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:25, 20:25.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:25, 20:25.

***Atraco a las tres y media***
Egubakoitza eta zapatua: 22:40, 00:40.
Domeka: 22:40.

***Nacer para morir***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***Vampiros: los muertos***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***En un lugar de África:*** ●●● / ***El compromiso:*** ●●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### RELACIONES CONFIDENCIALES

PUNTUAZIOA: ●

**ZUZENDARIA:** Daniel Algrant.
**AKTOREAK:** Al Pacino, Kim Basinger, Ryan O'Neal.

Urtean zehar egunkarietako zinema hitzorduak begiratuz gero, interesgarriak diren hiru edo lau film gutxienez aurkitzen ditugu. Udan egoera hori zerbait aldatzen da: herrietako zinema askok itxi egiten dute, eta hirietan izaten diren estreinaldi gehienek ez dute zinemara joatera bultzatzen. Horregatik, egunkariari begirada bat baino gehiago eman behar diogu film bat aukeratzeko. Adibidez, *Relaciones confidenciales*-en gela ilunera sartzeko arrazoi nagusia filmean Al Pacino eta Kim Basinger agertzea da. Al Pacinoren jarraitzaile sutsuak gustura egongo dira, aktorea filmaren eszena guztietan agertzen da-eta. Al Pacino izarra duenez, horri garrantzi handiegia ematen dio zuzendariak eta, honela, *Relaciones confidenciales*-ek ez du behar duen interesa lortzen.

Protagonista New Yorken bizi den aktore eta pertsonaia famatuen ordezkari eta harreman publikoa da. 60ko eta 70eko hamarkadatan indar handia izan bazuen ere, orain drogetan sartuta, hirietako ustelkerian murgilduta, ahal duen moduan bizirik irauten ahalegintzen da. Gainera, asasinatze baten lekuko izango da, eta horrek bere egoera



oraindik larriagoa izatea ekarriko du. Dena den, zuzendariak ez du intriga lan bat egin nahi, garrantzi handiagoa ematen dio hiriko politiko eta pertsonaia ospetsuen salaketa egiteari. Baina, zoritxarrez, salaketa hori nahiko topikoa eta azalekoa geratzen da.

*Relaciones confidenciales*-en pertsonaia nagusia Al Pacinok gustuko dituen horietako bat da: triku orrazkerarekin, gutxi apaindua, alderoka ibiltzen, begi txikiekin eta ezin arnasa harturik, beste dimentsio baten egotearen espresioarekin. Honela, filmaren erdigunea ez da pertsonaia, aktorea baizik. Zuzendariak aktorearen keinua, ibilerak, eta abar, gehiegi azpimarratzen ditu, denbora luzeegia galtzen du horrekin, eta istorioaren sendotasuna eta interesa ahuldu egiten da.

Hori dela eta, *Relaciones confidenciales* nahiko lan astuna da. *Progre* eta kritiko irudia ematen du, baina azkenenean, izar baten trebezia erakusteko filma besterik ez da.

ANTONIO ZABALA

INMO f3 inmobiliaria
SARE

Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**SALGAI**

**ARRASATE**
- 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
- 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.
- 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela eta sotoa. Guztiz berritua.
- 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela. Oso eguzkitsua. 150.253,03 euro / 25.000.000 pta.
- 65 m². Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea. Berrituta. Sotoa dauka.

**BERGARA**
- 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.

**ANTZUOLA**
- 75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka.

**ERRENTAN**

**OÑATI**
- Hiru logela, egongela, sukaldea (hornituta) eta bainugela.

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Osintxun. 99 m². Ganbara, 24 m². Berrizteko.
- Osintxun. 90 m². Eguzkitsua.
- Osintxun. Behea. 45 m². Berrizteko.

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**
**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**
**BASERRIAK**
- Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
- Ormaiztegin, Osintxun bi baserri, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloan, Elosun, Zegaman, Asteasun, Bedoñan.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**

ARETXABALETA
TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.
943 77 03 08

ARETXABALETA
BARRUTI INDUSTRIALDEAN 176 M²KO LOKALA EMATEN DA ERRENTAN.
943 76 35 09
MELTXOR

ANGIOZAR
JARDUNEAN DAGOEN ERRETEGIA EMATEN DA ERRENTAN.
629 46 42 46
943 76 08 43

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 73m². Berrituta. Gas berogailua du eta oso eguzkitsua da. 10m²-ko trastelekua du. Ikusi gura duenak dei dezala. 646 35 80 57.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai San Migel auzoan. 943 77 07 15.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Maria Jesus. 943 76 71 12.

**Bergara.** Etxebizitza salgai. 103 m2. Hornituta. Deitu 19:00etatik aurrera. 943 76 21 92.

**Larrabea (Legutiano).** Apartamentua salgai. 669 47 42 65.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Atiko berria emango nieke errentan bi ikasleri. Deitu 22:00etatik aurrera. 659 72 35 87.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Hiru logela. 605 43 29 31.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan Levanteko hondartzan, uztailaren 15etik 31ra. 943 74 20 31 edo 943 74 38 27.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan Levanteko hondartzan. Igerilekua eta aparkalekua. 625 70 20 55.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan. Hondartza ondoan, itsasoari begira. Hornituta. Igerilekua, telebista, aparkalekua. 630 41 84 65.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan. Logela bi. Hondartzatik oso gertu. 630 41 84 65.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Matxiategin. 943 76 37 97.

**Cambrils.** Etxebizitza berria ematen da errentan. Leku ezin hobean. 943 79 63 49 edo 619 37 51 18.

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan, ekainetik urrira arte. Bost ohe eta kalefakzio zentrala. 629 01 31 08.

**Hendaia.** Apartamentua ematen da errentan, hondartzatik gertu, prezio onean. Uztailetik urrira bitartean. 00 33 559 481 515. 943 64 14 50.

**Laredo.** Etxebizitza ematen da errentan, abuztuan. 617 78 85 38.

**Peñiscola (Castello).** Etxebizitza ematen da errentan. Logela bi, garajea eta igerilekua. Hondartzatik 200 metrora. Uztailean, abuztuan eta irailean. 627 62 71 52 edo 943 79 28 50.

**Torrevieja (Alacant).** Itsasoaren pare-parean dagoen hiru gelako bungalowa ematen da errentan, uztailean eta abuztuan. 943 79 52 94.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan Unibertsitate inguruan. Lau lagunendako. 667 07 26 28.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 678 43 31 35.

**Eskoriatza.** Lanean gabiltzan bi neska errentan hartzeko etxebizitza edo bi lagunendako tokia duen etxe konpartitu baten bila gabiltza. Eunate. 659 83 63 86.

**Oñati.** Etxebizitza hartuko genuke errentan. Lau ikasle gara. 605 72 34 30 edo 699 81 86 24.

OÑATI
PERTSONA BAT BEHAR DA KAFETEGI BATEN LUZAROAN LAN EGITEKO.
943 78 30 59

ARETXABALETA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN LAN EGITEKO.
652 70 82 46

BERGARA
ZERBITZARIA BEHAR DA TABERNA BATEN LAN EGITEKO.
943 76 50 99

ARRASATE
LORAMENDI KIROLAK DENDAN NESKA EUSKALDUNA BEHAR DA DENDARI ETA BULEGARI LANAK EGITEKO.
INTERESATUOK JO SAN ANDRESEKO DENDARA

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje itxia ematen da errentan Araba ibilbideko 27an. 20 m2. 943 79 69 83.

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Kontzezinon. Josefina. 943 79 55 20.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Pertsona bat behar da goizetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. 627 53 78 61.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Ingeniaritza teknikoan diplomaduna gertu ingeleseko eta batxilergoko bigarren mailara arteko eskolak emateko, uztailean. 20:00etatik aurrera deitu. 943 79 77 50.

**Arrasate.** 20 urteko neska gertu uztailean lan egiteko. 943 79 03 12.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egin eta umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Neska gertu aste barruan umeak zaintzeko. 943 79 19 88 edo 678 22 55 42.

**Bergara.** Emakume batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke irailetik aurrera. Esperientziaduna. Mari Karmen. 699 37 51 97.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak edo zaharrak zaintzeko. Amina. 676 77 24 67.

**Bergara.** Emakumea gertu gauetan pertsona bat zaintzeko. 646 59 56 56.

**Bergara.** Esperientziadun neska euskaldun batek pertsona nagusiak edo gaixoak zainduko lituzke, etxean edo ospitalean, gauez edo egunez. 616 53 37 96.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eta plantxatzeko. 943 76 29 52.

**Bergara.** Neska gertu umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 943 76 57 77 edo 625 70 49 41.

**Debagoiena.** Astean hiru egunean etxeko lanak egiteko eta gaixoak zaintzeko gertu. 607 41 31 62.

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. Hainbat lanetan esperientziaduna. 676 07 68 25 edo 943 77 30 86.

**Debagoiena.** Neska gertu arratsaldez edo orduka umeak zaintzeko. 943 71 53 74.

**Oñati.** Neska gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 635 70 07 93.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Goi mailako industria ingeniaria gertu eskola partikularrak emateko. Esperientzia handia. Arreta pertsonalizatua eta maila guztiak. Matematika, fisika, kimika, marrazketa, teknologia, elektrizitatea eta ingelesa. 630 71 35 83.

**Bergara.** DBHko klase partikularrak ematen ditut udan. Saioa. 605 72 82 99.

**Bergara.** Ingeleseko eskolak emango nizkie, uztailean, DBHko eta LOGSEko ikasleei. Ana. 659 33 17 41.

**Bergara.** Lehen Hezkuntzako neska-mutikoendako eskola partikularrak ematen ditut. 656 75 90 77.

**Bergara.** LOGSE mailara arteko eskolak emateko gertu, uztailean, goizetan. Irene. 943 76 54 12.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Kawasaki** GPZ motoa salgai. 900 euro. 943 76 72 75.

**Opel** Vectra 1.6 S autoa salgai. Matrikula: SS-AF. IAT (ITV) ekainean pasatu du. 1.300 euro. 669 70 71 37.

**Renault** 19 GTS autoa salgai. Bost ate. Ibilgailuen Azterketa Teknikoa apirilean pasatu zuen. Ondo dago. Prezio onean. 676 57 63 28.

**Rover** 820 SI autoa salgai. ABS, aire-girogailua, alarma eta eguzki-sabaia. 2.000 euro. 635 73 54 37.

**Seat** Ibiza TDI autoa salgai. 90 ZP. 696 38 37 68 edo 676 07 68 25.

**Seat** Leon TDI 110 Sport autoa salgai. Bi urte eta erdi. 65.000 Km. 679 78 09 74.

**Suzuki** Adress R motoa salgai. 696 38 37 68 edo 676 07 68 25.

**Volkswagen** Golf GTD (bigarren saila) autoa salgai. Bost ate eta eguzki-sabaia. Gris iluna. 1.500 euro. 669 08 42 35.

**Volkswagen** Corrado 1.8 16 v autoa salgai. Zuri kolorekoa. Direkzio lagundua, kristal-igogailu elektrikoa, aire girotua. Deitu arratsalde edo gau partean. 4.800 euro, negoziagarriak. Oso ondo dago. Xabier. 615 76 37 75.

**Volkswagen** Transporter 2.4 D furgoneta salgai. 635 74 10 04.

**Yamaha** Diversion motoa salgai. Merke. 943 76 02 04 edo 620 99 61 71.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurrak.** Fox Terrier arrazako hiru txakur salgai: bost hilabeteko txakurkume bi eta nagusi bat. 615 79 64 15.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak** salgai: arroparako armairu bi (bata haritz egurrezkoa) eta Combi markako hozkailu bat. Denak oso ondo daude. Deitu 20:00etatik aurrera. 630 13 08 92.

**Habia-ohea** (ohe bi) salgai. Oso ondo daude. 943 76 15 76.

**Piragua** salgai. Surfa egiteko eta errekan ibiltzeko egokia. Gehigarri guztiak ditu. Josu. 945 44 54 11.

### 802. EROSI

**Debagoiena.** Metal guztietako txanponak eta bankuko billeteak erosten ditut. Deituz gero, bila joango naiz. 945 44 50 44.

### 808. BESTELAKOAK

**Antzuolara** lanera joateko autoa duen norbait behar dut. 06:00etan sartzen naiz. Udarako bakarrik da. 943 76 26 63.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Bergara.** Gazte talde batek antzerki irakaslea behar du. Maika. 677 00 47 22.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

publidenak.

Era guztietako publizitate-artikuluen fabrikazioa, markaketa eta banaketa.

- Enpresetara bisitak
- Enpresa-opariak
- Promozioak
- Publizitate-artikuluak
- Gabonetarako otarrak
- Artikulu pertsonalizatuak
- Diseinua. Arte grafikoak.
- Fotokopiak zuri-beltzean eta koloreetan.
- Estanpazioak kamisetetan eta txapeletan.
- Koadernatzeak eta plastifikatzeak.
- Trofeoak. Txapela bordatuak.
- Era guztietako errotuluak.
- Seinaleak, plaka ofizialak.
- Pankartak eta banderak.
- Laser bidezko markaketak, serigrafia, transferrak, termograbaketak eta bordatuak

Edozein kopuru. Epe laburrak.
Aurrekontuak konpromiso barik.
Erakusketa zabala.

**HELBIDE BERRIA:**
ARRASATE PASEALEKUA 8
ARRASATE

TEL.: 943 77 06 09 (4 linea)
FAXA: 943 71 23 77
POSTA-E: publidenak@euskalnet.net

**Aizu, adi!**

Egubakoitz arratsaldez libre bazaude eta **GOIENKARIA** banatzeko prest, deitu:
Tel: 943 71 23 91

Banaketa lanagatik ordainduko zaizu.

## AIPAGARRI

### Anselmo Arrieta

BERGARA



Etzi, domeka, meza emango du Anselmok Bergarako San Pedro parrokian, apaizgintzan daramatzan 50 urteak ospatzeko. Era horretan, erretiratu egingo da. Bergararra den arren, urte asko eman ditu kanpoan; besteak beste, Madrilen Errenterian eta Ekuadorren egon da urte hauetan guztietan.

### Borja Barrutiabengoa

BERGARA



Iazko ekainean bukatu zituen Borjak Arkitekto Tekniko ikasketak. Aurreko astean, berriz, Estatu mailako Ikasketa Bukaerako Lehen Saria eman zion Hezkuntza Ministerioak. Nafarroako Unibertsitatean egin ditu ikasketak Borjak, eta promozioko espediente akademiko onena izan zuen.

### Jabi Mayor

ARRASATE



Udalako jatetxe baten erakusketa jarri du Jabik, hainbat akuarela lan, hain justu. Koadro, mural eta bestelako margolan ugari egiten zituen Jabik orain dela bospasei urtera arte. Garai hartan, koman sartu zen, eta errekuperazio lan luzearen ondoren, berriro hasi da margotzen.

## HILDAKOAK

**Federico Maiz Jauregialtzo.** Oñatin, ekainaren 20an. 76 urte.
**Luis Ignacio Ruiz de la Prada Untzeta.** Bergaran, 22an. 82 urte.
**Jose Mari Agirre Irasuegi.** Oñatin, ekainaren 23an. 69 urte.
**Alejo Ugarte Moiua.** Oñatin, ekainaren 23an. 95 urte.
**Pablo Zuazabeitia Iza.** Aretxabaletan, ekainaren 23an. 77 urte.
**Ignacio Arregi Candudap.** Oñatin, ekainaren 24an. 91 urte.
**Jesusa Alzola Galdos.** Oñatin, ekainaren 24an. 93 urte.
**Alvaro Zubillaga Altube.** Aretxabaletan, ekainaren 24an. 71 urte.
**Timotea Errasti Gorostiza.** Aretxabaletan, 24an. 92 urte.
**Maria Teresa Gorroño Arregi.** Aretxabaletan, 24an. 75 urte.
**Candido Moraleja Rodríguez.** Arrasaten, 25ean. 102 urte.
**Antonio Usandizaga Altuna.** Elgetan, ekainaren 25ean. 87 urte.



**Elene Astaburuaga Velasco**
Aretxabaleta • Ekainaren 20a • 2,800 Kg. Gurasoak: **Jabi** (Arrasate) eta **Resu** (Aretxabaleta). Argazkian,umea Ainhoa eta Jon lehengusuekin.



**Ioritz Aranguren Arregi**
Oñati • Ekainaren 20a • 3,250 Kg. Gurasoak: **Amaia** (Oñati) eta **Gotzon** (Oñati). Argazkian, umea amarekin, amama Margarekin eta osaba Eugeniorekin.



**Naia Lasagabaster Muñoz**
Oñati • Ekainaren 20a • 2,860 Kg. Gurasoak: **Jon Ander Lasagabaster** (Oñati) eta **Monika Muñoz** (Oñati). Argazkian, umea gurasoekin.



**Saioa Gómez Arizmendi**
Bergara • Ekainaren 25a • 3 Kg. Gurasoak: **Jose Luis Gómez** (Bergara) eta **Arantzazu Arizmendi** (Bergara). Argazkian, umea amaren besoetan.

Goienkaria
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: Goienkaria: 75 €.



**Andoni Gavián Hidalgo**
Zumarraga • Ekainaren 23a • 3,100 Kg. Gurasoak: **Manu Gavián** (Aretxabaleta) eta **Ana Hidalgo** (Aretxabaleta). Argazkian, umea aitaren besoetan.

**Esti Saldaña** arrasatearra eta **Julio Rodríguez** oñatiarra bihar, ekainak 28, ezkonduko dira Arantzazuko Santutegian. Ezkonbidaian, berriz, Mexikora joango dira Esti eta Julio. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familia osoaren partetik!



### ESKER ONA

**Pablo Zuazabeitia Iza**



**Aretxabaletan** hil zen 2003ko ekainaren 23an.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean*

### ESKELA

**Jose Manuel González Garrido**

**Bergaran** hil zen 2003ko ekainaren 24an, 42 urte zituela.



*Ez nau izutzen negu hurbilak*
*uda beteko beroan*
*dakidalako irauten duela*
*orainak ere geroan*

Emaztea eta familia

### ESKER ONA

**Filomena Askasibar Guridi**



**Bergaran** hil zen 2003ko ekainaren 15ean, 87 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean*

### ESKER ONA

**Marcelo Basauri Basauri**



**Elgetan** hil zen 2003ko ekainaren 12an, 85 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean*

### III. URTEURRENA

**Fernando Santamaría Franco**

2000ko ekainaren 26an hil zen 37 urte zituela



Erraza izan zen zu maitatzea
ezinezkoa, ordea, zu ahaztea.
Beti gure bihotzean izango zaitugu

*Haren emazteak, seme-alabek eta gainerako ahaideak otoi bat eskatzen dizuegu*

### ESKER ONA

**Julian Gantxegi Belategi**



**Bergaran** hil zen 2003ko maiatzaren 21ean, 52 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean*

## ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

**ZAPATUA, 28**

Laino gutxi batzuk izango ditugu zapatuan; dena dela, egunak aurrera egin ahala, lainotu egingo du.Tenperaturak gora egingo du. Haizea, berriz aldakor ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Zaparradak arratsaldean.
**Errioxa:** Ostarteak.
**Pirinioak:** Ekaitza.

**DOMEKA, 29**

Ez dugu laino asko izango domekan, baina egunaren bukaerarako lainotu egingo zaizkigu zeruak. Tenperaturak gora egingo du, eta haizea hego mendebaldetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Ekaitza.
**Errioxa:** Ekaitza.
**Pirinioak:** Zaparradak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

**23º C**

ILARGIAREN ALDIAK: EKAINA

| ilgora | ilbete | ilbehera | ilberri |
|---|---|---|---|
| 7 | 14 | 21 | 29 |

EGUZKIA: EKAINAREN 29a

Sortu 06:30 · Gorde 21:52

## URKULUKO URTEGIA

**Azkeneko asteotako bero sargoriak izan du eraginik Urkuluko urtegian, behera egin du ur mailak. Orain dela bi aste %87 zen ur maila; oraingo astean, berriz, %84.**

**% 84**

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**((112)) SOS DEIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 76 53 40 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 76 24 40 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 77 12 28 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## EUSKARAZKO HEDABIDEAK

| | | |
|---|---|---|
| GOITB | 943 71 23 96 | goitb@ goiena.com |
| Goienkaria | 943 76 92 71 | goienkaria@goiena.com |
| Arrasate Press | 943 71 25 11 | arrasatepress@goiena.com |
| Berrigara | 943 76 03 97 | berrigara@goiena.com |
| Aretxagazeta | 943 79 86 21 | aretxagazeta@goiena.com |
| Goibekokale | 943 76 92 71 | goibekokale@goiena.com |
| Kontuola | 943 76 03 97 | kontuola@goiena.com |
| Txirritola | 943 71 25 11 | txirritola@goiena.com |
| Ze barri? | 943 79 86 21 | zebarri@goiena.com |
| Kontzejupetik | 943 78 26 17 | kontzejupetik@oinati.net |
| Putz | 943 79 42 30 | putz@euskalnet.net |
| Arrasate Irratia | 943 71 17 31 | irratia@goiena.com |
| Oñati Irratia | 943 78 26 17 | irratia@oinati.net |
| Sustatu.com | 943 76 92 71 | sustatu@sustatu.com |

*Erakunde hauen laguntzaz*

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza

**Antzuolako Udala**
**Aramaioko Udala**
**Aretxabaletako Udala**
**Arrasateko Udala**
**Bergarako Udala**
**Elgetako Udala**
**Eskoriatzako Udala**
**Leintz Gatzagako Udala**
**Oñatiko Udala**

TRUK EUSKAL LINGE

TOALLA-JOKOA
3 TOALLAZ OSATUTAKO JOKOA:



• 35x50, 50x100, 70x140
• Koloreak: granatea, berdea, horia, urdina
• 100% kotoia
• 500 gr. m2

28 €

MAHAI-ZAPIAK



• 100% kotoia • Kolore urdina, gorria eta berdea
• Amantal jokoa 160x200 eta sei aho-zapi

47 €

Amantal jokoa 150x250 eta zortzi aho-zapi

58 €



deitu!

DEI IEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN

TRUK
902 45 12 12
IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

3,69 €
BIDALKETA GASTUAK

## HITZGEZIDUNAK

Luma



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Bilkura / * Izena | | Ehun mota / Portu | | Segada |
| | | | | | | | |
| | | | Teilatuko ohola / Duda partikula | | | | |
| * Deitura / Oso garbia | | Pl., intsektu mota / Ugazalaba | | | | | |
| | | | | | | Iodoa / 1 | |
| Biloa / Barazki ezaguna | | | | | Jupiterren satelitea / Sustraiak, zainak | | |
| | | | Musika nota / Nafarroako ibaia | | | Bokala / Bokala | |
| Nazio, herri / Arabako | | | | | | | Italiako hiria |
| | | | | | | Kontso-nantea / Kontso-nantea | |
| Gizaseme heldua | Iridioa / Ikas eta Ari | | | Bururatu / Nerau | | | |
| | | | | | | Röntgen / Interjek-zioa | |
| Errep., txori mota / Abesti | | | Gai / Kontso-nantea | | | | |
| | | | | | Indioa | | |

## BILABILA7





## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**ANGULAK EDO FIDEO SOPIA?**
Eibartar kuadrilla batekuak –8 lagun– batu ziran kilo laurden angula jateko asmotan. Asi da euritako bat plasta-plasta, arraunian lez, platerrera angula pillia botatzen. Orduan, beste batek esan detsa:

- I, txotxo, eztok gero pentsauko fideo sopia danik...

**ASÍ SEA**
Primo de Riveran diktadura denboran pasau ei zan Plazentzian. Ango tabernari batek bazeukan lorito bat tabernan. Itxura danez, oso demokrazia giroan azia. Lorito aren leloa hau izaten zan: "¡Abajo la dictadura!, ¡Abajo la dictadura!".

Enterau dira Guardia Zibilak ta bai amenazau be ugazaba. Kontuz ibiltzeko gero!
Bai plazentziar tabernarixak berbia emon be loritoak ez zebala geixago alakorik esango bere tabernan. Ta ara zer egin zeban: monjen komentuko loritoakin trukau tabernakoa. Andik egun batzutara, juan dira Guardia Zibilak "inspekziñua" egitera. Ta loritoa axaxau naixan, esaten detse:
- Lorito, !abajo la dictadura¡
Lorito barrixak –monjetatik ekarritxakuak– erantzun ei zeban:
- Así sea, por los siglos de los siglos.

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



### Txapeldun geratu zen Realean, zeintzuk ziren debagoiendarrak?

Ezin izan. Realak sekulako denboraldia egin du, eta Liga Txapelketan 76 puntu lortu baditu ere, ez da txapeldun geratu. Madrilgo merenge galaktikoak geratu dira txapeldun. Hala ere, bigarren postuak hurrengo denboraldian Europako Txapeldunen Ligan jokatzeko aukera emango die txuri-urdinei, eta ez da gutxi. Kontuak kontu, Realak orain dela 22 urte lortu zuen lehen liga. Orain bezala orduan ere bazen debagoiendarrik Realean. Hiru, hain justu ere. Baina, asmatuko ote zenuke nortzuk ziren?

- Kortabarria, Amutxastegi eta Lopez Rekarte.
- Kortabarria, 'Gaztelu' eta Idigoras.
- Kortabarria, Barkero eta Ormaetxea.

**Erantzun zuzena:** Kortabarria, Gaztelu eta Idigoras.

## SOLUZIOAK



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ● | B | ● | Z | ● |
| | | | M | I | K | E | L |
| | | | ● | L | A | T | A |
| ● | I | ● | O | T | I | A | K |
| A | R | A | T | Z | A | ● | I |
| ● | I | L | E | A | ● | I | O |
| A | Z | A | ● | R | E | ● | A |
| ● | A | B | E | R | R | I | ● |
| A | R | A | B | A | R | ● | T |
| ● | ● | I | R | ● | O | T | U |
| G | I | Z | O | N | A | ● | R |
| ● | K | U | ● | E | K | A | I |
| K | A | N | T | U | ● | I | N |

## ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*
Arrakasta eta asebetetasuna esparru guztietan, batez ere lanean. Izan ere, jendea konbentzitzeko eta denetik fruitua ateratzeko gaitasun handia duzu. Bestalde, atzerrira bidaia egingo duzu, lan kontuengatik.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*
Segurtasunik eza handia bizi duzu, eta hori ez da batere ona proiektuak aurrera eramateko orduan. Izan konfiantza zeure buruarengan. Bestalde, gastu handia egingo duzula-eta, ingurukoekin diskusio bat baino gehiago izango dituzu.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*
Zure ekonomiak bultzadatxoa izango du, aurretik egindako inbertsio batzuk fruituak ematen hasi dira-eta. Bestalde, ohi baino aktiboago ibiliko zara, eta edozer egiteko beste energia izango duzu.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*
Ahalegin zaitez gaizki ulertzeak ekiditen eta gauzak argi uzten; osterantzean, lan-proiektu garrantzitsu bat bertan behera gera daiteke, eta ekonomikoki astindu ederra jaso zenezake. Bestalde, aldaketak lanean; ez dira izango zure gustukoak, baina onartu egin beharko dituzu.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*
Zure sexu berekoengan inbidia piztuko duzu, kontrako sexukoendako erakargarri egongo zara-eta. Bestalde, osasunari dagokionez, zuhurtzia aholkatzen dizut.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*
Diru-sarrera handiagoak izango dituzu, lanean hobekuntzak izango dira-eta. Bestalde, ez zaitez presaka ibili, orkatila-zaintiratuak eta estropezuak izateko joera izango duzu-eta.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*
Buruan baldin bazeneukan plazerrezko bidaiaren bat egitea, ahaztu ezazu, oraingoz; izan ere, ardura gehiegi izango dituzu esku artean, eta ez duzu izango denborarik bidaietarako.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*
Diru-sarrera handiagoak izango dituzu, lanean hobekuntzak izango dira-eta. Bestalde, energiaz gainezka egongo zara, eta energia hori guztia ondo zuzentzen baduzu, helburuak beteko dituzu.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*
Gauza askotan hartzen duzu parte, baina ez zara inoiz buru-belarri sartzen; edozelan ere, pertsona bat sartuko da zure bizitzan, eta jarrera hori birplanteatzen lagunduko dizu.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*
Ez egin aurka lanean gertatuko diren aldaketei, epe luzera oso onuragarriak izango dira-eta. Bestalde, transformazioak amodio kontuetan.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*
Oso ondo dago ideia onak izatea, baina ez da nahiko; izan ere, horiek praktikara eramatea ere behar-beharrezkoa da. Aurrera egin. Ondo irtengo da. Bestalde, dirua edo agiri garrantzitsuren bat galduko duzu, oharkabean.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*
Gara ezazu zure alde tekniko eta praktikoena. Bestalde, urduriegi eta suminkorregi ibiliko zarenez, ingurukoekin eztabaida inozoren bat izango duzu.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA



## 'Top Manta' ikuskizuna
EGUAZTENA/ **20:30**

### Txatxilipurdiren 'Top Manta' ikuskizuna GOITBn

Txatxilipurdi elkarteak antolatutako *Top Manta* ikuskizuna ikusgai egongo da Goiena Telebistan. Unitate mugikorrarekin grabatutako saioa osoosorik ikusteko aukera izango dute GOITBko ikus-entzuleek.



## Eskoriatzako San Pedroak
MARTITZENA / **20:45**

### San Pedro jaietan albistegi eta saio bereziak

Martitzenean albistegi berezia grabatuko du GOITBk Eskoriatzan. Gorosarri plazan grabatuko du albistegi berezia, eta herriko hainbat protagonistari elkarrizketak egingo dizkiote. Horrez gainera, *Jaiak 2003* saio berezia ere egongo da ikusgai.



## A-1 autobidea aztergai
EGUBAKOITZA / **20:30**

### Eibar-Gasteiz autobidea aztergai 'Astebete'-n

Goiatz Aranak elkarrizketa egingo dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide diputatu Antton Jaimeri. A-1 Eibar-Gasteiz autobideko Bergara eta Eibar arteko errepide tartea urrian irekitzeko asmoa du Gipuzkoako Diputazioak.



## Aizkorriko Maratoia GOITBn
LASTER

### Aizkorriko Maratoiaren gaineko erreportaje luzea

Aizkorriko Maratoia uztailaren 6an jokatuko da. Debagoieneko ordezkari dezentek hartuko dute parte mendi maratoian, eta Goiena Telebista ere bertan izango da. Gure ordezkarien berri emango dizuegu erreportaje zabal baten.

## TELEBERRIAK

### Goiena Telebistak saio bereziak egingo ditu Debagoieneko herrietako jaietan

Bergarako eta Arrasateko jaietan egin duen moduan, GOITBk ibarreko gainerako herrietan ere jaietako saio bereziak grabatuko ditu. Batetik, albistegia jaietan den herrian grabatuko dute, baita jaietako irudi, elkarrizketa zein albisteak batzen dituen saio berezia ere. Eskoriatzako San Pedro jaietan saio bat grabatuko dute eta Elgetako eta Aramaioko jaiak biak batera saio bakarrean emango dituzte. San Pedro jaietako saioa martitzenean izango da, albistegiaren ostean.

### Astelehenetik aurrera programazio berezia egongo da GOITBn

Astelehenean hasi eta uztailaren 24ra bitartean Goiena Telebistak programazio berezia eskainiko du, eta gero, irailera arte agur esango digute bertako langileek. Uztailean, hortaz, eguneko albistegia izango da 14:30ean eta programazioa urtean barrena grabatutako hainbat saiok osatuko dute.

### EiTBri aholkua emango dio Euskaltzaindiak

Euskaltzaindiaren eta EiTBren artean lankidetza akordioa sinatu dute, hizkuntza akademiak komunikazio taldeari aholkua emateko. Euskararen erabilera egokiaren alde, aholkua eskainiko dio EiTBri Euskaltzaindiak hemendik aurrera eta, horren gainean, urtean lau txosten osatuko ditu, normalizazioa, sustapena eta erabilera zuzena bultzatzeko.

**MARKEL ZABALA** / GOIENA TELEBISTAKO UNITATE MUGIKORREKO LANGILEA

# *"Kalean kamerek errespetua ematen diete herritarrei, eta lotsatu egiten dira"*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**1998an hasi zen Markel Zabala GOITBn, eta gaur egun Euskal Telebistarako lan egiteaz gainera, Goiena Telebistako unitate mugikorrean dihardu. Besteak beste, Debagoieneko herrietako jaietan saio bereziak egingo dituzte.**

**Zein da zure lana GOITBn?**
Goizetan bideoak ikusten eta horiek muntatzen ibiltzen naiz, furgonetarekin unitate mugikorrean jarduten dut eta programa berezi batzuetarako irudiak grabatzen ditut. Bestalde, orain Euskal Telebistan nabil lanean, Donostian. Batez ere, *Esta es mi gente* saiorako kameralari lanak egiten ditut, baina beste saio batzuetarako grabazio lanak egiten ere ibiltzen naiz.


GOIENKARIA

**Aurretik zein lanetan jardun duzu?**
GOITBn denetariko lanetan jardun dut: berrien saioan, aste bukaeretan urtebetez ibili nintzen lanean... *Plas-Plas* umeendako saioan egin nuen denboraldian, adibidez, oso gustura ibili nintzen.

> *"GOITBn denetarik egin dut: bideoak muntatu, saioak grabatu, unitate mugikorrean ibili..."*

**Zein ezberdintasun dago platoaren eta kalearen artean?**
Kalean beti izaten da arazo gehiago: argia, egoera bera, kableak non entxufatu... Gainera, kalean kamerek errespetua ematen diete herritarrei, eta lotsatu egiten dira. Hala ere, badira lotsa galdu eta gu ere parrandan gabiltzala pentsatuz kamerarena jolas moduan hartzen duten pertsonak.

**Eta ETBren eta GOITBren artean?**
Baliabide aldetik Euskal Telebistak aukera gehiago eskaintzen dituen arren, ez daukat sormenerako aukerarik. Kameralari lanak baino ez ditut egiten; GOITBn, berriz, telebistan egin daitezkeen lan gehienak egiten ditut: bideoak muntatu, saioak grabatu...

**Hurrengo asteotarako zer daukazue esku artean?**
Debagoienean jairik jai ibiliko gara furgonetarekin, baina ez parrandan, saio bereziak grabatzen baizik. Horrez gainera, Fagorrendako bideo batzuk prestatzen gabiltza.

## KAMERAAURREAN



*"Jende askok alde egiten du San Joanetan, eta gu ahalegintzen gara geratzen direnendako ekitaldiak antolatzen. Fama txarra dugu baina gauzak egiten ditugu".*

**Arkaitz Gaintzarain** / Arrasateko Koadrilak
'BERRIAK BEREZIA' (2003-06-26)



*"Irailetik aurrera konturatuko gara Realak zer lortu duen. Astegunetan jendea Anoetara joango da Txapeldunen Ligara, eta etxeetan gustura ikusiko dugu".*

**Jose Luis Ezkurra** / 'Harmailatik' saioa
'BERRIAK' (2003-06-23)

## TELEBEGI/ Maria Agirre

# *Tele-zaborra garbigailura*

Uda partean etxea garbitu eta armairuak txukuntzeko ohitura izaten ohi da, eta telebista kateak ere badirudi horretan hasi direla. T5 kateko arduradunak ia-ia barkamena eskatzera iritsi dira. Azkenaldian saio kuttun eta izarra izandakoa, *Hotel Glam*, batbatean zaborra ei da, telebista kate batek eskaini ezin duena. TVE kateko arduradunak ere sartu dira tele-zaborraren inguruko eztabaidan, eta azpimarratu dute eurek horrelakoak eskaintzeari aspaldi egin ziotela uko.

Bat-batean diote umeen eta gazteen jokaeran eragin kaltegarria izan ditzaketen saioek erabat arduratuta dituztela. Ez dituzte Potxolo, Yola eta antzerako pertsonaien jokaerak kopia ditzaketen gazteak nahi! Baina zergatik orain, ikusleen elkarteak urteak daramatzanean horrelako kritikak egiten, eta audientziaren aitzakiarekin orain arte kasurik ere egin ez badiote? Berriro ere argi geratu da bibotedun baten eraginkortasuna. Aznarrek halako saioak gustuko ez dituela esatea nahikoa izan da urtetako eztabaida erabakita uzteko.



## Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

**Eskaintza**
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

**Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

**Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik**






## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Pildain jatetxea

Udala auzoa 14 / ARRASATE
943 79 11 65 / 943 77 18 40

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Lagun arteko afariak
- Bataio eta jaunartzeak
- Ogitartekoak eta kazuelatxoak

**Berezitasunak**
- Bildotsa laban erreta
- Babarrunak
- Arraina
- Etxean egindako ogia




## Taberna-Berri jatetxea

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41
*tabernaberri@terra.es*

**Eskaintza**
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

**Berezitasunak**
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



## Torrekua jatetxea

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak




## Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: Okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



## Uxarte ostatua

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

# Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak




## *Atzeskua*

MAIDER OSA

# Jone Muxika/ Txirrindularia

**Bizikletarekin berandu hasi zinen, baina berandu hasteko emaitza ezin hobeak eskuratu dituzu.**

Bai, lehenengo urtean ez nituen lasterketa guztiak egin, baina Euskadiko Openean bosgarren tokia egin nuen. Bigarren urtean, iaz, Euskadikoan hirugarren postua lortu nuen, eta aurten hirugarren urtea dut bizikleta gainean lehiatzen.

**Zerk animatu zintuen bizikleta hartzera?**

Betidanik gustatu izan zait bizikletan ibiltzea, eta lehiatzen hasteko gogoa hortxe izan dut beti. Nire buruarekin promesak egin nituen gero, eta garaipenak familiako kideei eta inguruko koei eskaini nahi izateak indarra eman zidan. Lehenengo urtean mendiko bizikletarekin ibili nintzen, bigarrenenean ziklo-krosean eta aurten errepidekoa probatu nahi nuen, baina lesio bat tarteko, geldirik nago oraindik.

**Entrenatzen zeinekin hasi zinen?**

Koadrilako Kako eta Igor ere bizikletan ibili zale amorratuak dira, eta hasieran haiekin joaten nintzen. Bigarren urtean Alfadeco enpresak, lan egiten dudan enpresak, diruz lagundu ninduen. Hirugarrenean Arrasateko Athlon kirol medikuntza zentroan entrenamenduak eta jarri dizkidate; eta, hortaz, seriotasun handiagoarekin hartu dut aurten.

**Hasi zinenetik hona asko aldatu dira zure helburuak?**

Lehenengo helburua hastea izan zen, eta neukan promesa hori familiako bati eskaintzea. Gero, emaitzen arabera helburuak jarri dizkiot nire buruari, baina betiere hankak lurrean edukita, laster 30 urte egingo ditut-eta.

**Eta prestakuntza?**

Lehenengotan batez ere asteburuan hartzen nuen bizikleta, eta astean barrena gutxiago, batez ere denbora faltagatik. Orain ere denbora ez daukadan tokitik ateratzen saiatzen naiz. Eguerdian lanetik itzultzerakoan, bazkaldu aurretik arrabolean ibiltzen naiz, eta ordutegia milimetrora aprobetxatzen dut.

**Azkenaldian, ordea, geldirik egotera behartu zaitu lesio txar batek.**

Joan den urtarrila ezkero nago geldirik, nahiz eta errekuperazioa askoz azkarragoa izango zela uste izan. Erresonantzia bat egin diezadaten zain nago.

**Elgetako herritarrek omenaldia egin dizute orain dela gutxi.**

Hori izugarria izan zen. Banekien zerbait egin behar zidatela, baina horrenbestekoa ez dakit merezi nuen… Elgetako herriari biziki eskertu beharrean nago, hori ez dut sekula ahaztukoeta. Indarra eman dit aurrera segitzeko.




**“Betidanik gustatu izan zait bizikletan ibiltzea, eta lehiatzen hasteko gogoa hortxe izan dut beti”**

**“Emaitzen arabera helburuak jarri dizkiot nire buruari”**

**“Elgetako herriari biziki eskertu beharrean nago, omenaldia ez dut sekula ahaztuko-eta”**

► *Elgetarra / 29 urte / Alfadeco-ko langilea*

## PIPERRAUTSA

### *Berria*

Kioskoetan da *Berria*, lehengo *Egunkaria*-k utzitako hutsunean. Hura baino indartsuago dator, harpidedunez eta tiradaz. Zabaldu egin da lehengo oinarria eta hartzaile berriak inguratu dira egunerоko berrira. Ni neu tartean, itxaropena berpiztu egin zait eta.

Aurrekoa hobetzeko asmoa erakutsi dute *Berria*ko arduradunek. Traumatikoak direnean ere, etenak bihur daitezke aukera. Ondo legoke itxierako jipoia baliatzea produktu indarberritua egiteko.

Ideiak argitze aldera, erantzun nahi nioke *Berria*ren publizitateko galdera bati. *Plurala? Zein baino pluralago?* Nire ustez, euskarazko egunkariak izan behar du beste guztiak baino pluralago. Eta ez diot hau etikaz baizik logikaz. Beste egunkari guztiak atxikita daude komunitate ideologiko bati, eta ikuspuntu horretatik dihardute. Lagunen lagun eta arerioen arerio. Aldiz, Berria dago atxikia hizkuntz komunitate bati, eta izan behar du hizkuntza horren hiztun guztiak kabitzeko modukoa. Euskarazko bakarra da, euskaldun guztiontzat behar du. Neurri horretan izango du guztion babesa. Eta betebehar horrek bereizten du besteetatik.

Ikusten ohituak gaude egunkariak egurra banatzen, bakoitzak bere etsaiei. Horren ordez, posible da informazio osoa ematea, modu orekatuan, eta iritzi guztiekin. Hau lortzen duen neurrian izango da *Berria* behar bezain plurala, besteak baino pluralago.

MIKEL IRIZAR




Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA
Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 19 81
Fax: 943 71 19 82
GIPUZKOA